

Euskalgintza sindikalgintzan txertatu (V)




JON MAIA

J.C. ETXEGOIEN, XAMAR



XABIER ITCAINA



Jon Maia

«Ni bi munduetakoa naiz» 4

Jon Maia euskal Filologian lizentziaduna da eta Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalera hiru bider iritsi da. Hemen jasotako hitzaldian 'Riomundo' bere liburuaz ari da, Gerra Zibilean galtzaile gertatu eta Euskal Herrira lanera etorritako hainbat erbestera gogoratu eta aintzat hartu nahian.



Juan Carlos Etxegoien, *Xamar*

«Euskara, euskaldunak, Euskal Herria» 34

Xamar hizkuntzalari eta irakasleak bere hitzaldian euskararen inguruko hainbat mito nabarmen uzten du, gure hizkuntzaren aldeko eta aurkakoek erabiltzen dituztenak, baina gauza bat argi utzi nahian: Herria hizkuntzak definitzen du, eta gurea "euskararen herria" izan da betidanik.



Xabier Itçaina

«Hiritartasuna, gizarte zibila eta mobilizazio kolektiboak Ipar Euskal Herrian» 53

Zientzia politikoetan lizentziaduna, Xabier Itçaina lapurtarrak Iparraldeko azterketa soziologiko bat azaldu zuen, politikan eta gizartean bereizi izan dituen hiritar tipo desberdinez.

© Liburuxka honetan jasotzen diren testuak egileen jabegopean daude

Argitalpena:
Manu Robles-Arangiz Institutua
Barrainkua, 13
48009 BILBO
www.mrafundazioa.org

Inprimaketa: Bilbo Graf (Bilbo)
ISBN: 978-84-691-9086-9
Lege gordailua: BI-397-09



14. Dokumentua - 2009.ko Otsaila

Hitzaurrea

Dani Gomez,
Manu Robles-Arangiz Institutuko zuzendaria

“Euskalgintza sindikalgintzan txertatu” saileko ale honetan hiru hizlariren emaitza jaso dugu: Jon Maia, Juan Carlos Etxegoien *Xamar* eta Xabier Itçaina. Hirurek gai desberdinak jorratu dituzte, politika, autobiografia eta linguistika, hirurek ikuspuntu anitzetatik.

‘Riomundo’ izeneko bere liburua abiapuntu dela, Jon Maiak memoria historikoa eta immigrazioa ditu hizpide, bere bizipen-tan oinarrituta: Batetik, memoria, aiton-amonen jatorria, Gerra Zibilean galtzaile izan baitziren. Bigarrenik, immigrazioaren errealitatea, Euskal Herrira behar bila etorri zirenen bizitza eta lanak. Maiak integrazio estrategiak ezinbestekotzat jotzen ditu, eta jende askok etorkinei buruz duen iritzi txarrari aurre egiten die: haiek ez datoz inori ezer kentzera; areago, haiek ere, oro har langile-klasearen moduan, esplotazioa jasaten dute.

Hurrengo atalean, euskararen eta euskaldunen historia miazten duelarik, Juan Carlos Etxegoien *Xamar* hizkuntzalaria ondorio argi batera iristen da, Xalbador zenak ere bere garaian adierazi zuena: “Herria da gorputza, hizkuntza bihotza”. Euskal Herria euskararen herria dugu, eta historian horrela definitu izan dugu geure burua: euskaldunak, euskaradunak alegia.

Xabier Itçaina irakasleak, berriz, Ipar Euskal herriko gizartean azertu dituen figura politikoak azaltzen dizkigu, guztiak ere gaur egungo politikan eragiten ari diren joera eta pertsonak: errepublikanoetatik hasi eta ‘disidente’etaraino. Azken talde hau, zein buruz dioen “ez dute estatutaren presentzia eta eskubidea onartzen eta aplikatzen”, edota “ideia politikorik plazaratzen ez duena, jende aurrera azaltzen ez dena”, omen da Iparraldean handiena.

Espero dut gustokoa izango duzuela liburu hau; gogoeta eta pasarte interesgarriak badituzue bertan. Hurrengorako ere horrelako emaitzak izango dituzten hitzaldiak antolatzen saiatuko gara Manu Robles-Arangiz fundazioko taldean.

Ni bi munduetakoa naiz *

Jon Maia

Aurkezpena Fernando Iraeta

Arratsalde on. Ikusi duzue ekitaldi honi izenburua “Ni bi munduetakoa naiz” jarri diogula. Jon Maiak *Riomundo* eleberria idatzi du. Bere lehenengo liburua da. Durangoko azokarako kaleratu zuten eta dagoeneko hirugarren edizioan doa.

Berrogeita hamargarren hamarkadan, euren gogoaren kontra eta egoerak behartuta, herria, sendia eta etxea utzi behar izan zuten milaka erbesteratuei buruzko gogoetak plazaratzen ditu liburu horretan. Eta gaurko hitzaldian ere gertakari horren inguruan hainbat hausnarketa konpartituko ditu gurekin.

Erbesteratuak esan dut, ez emigranteak. ‘Vascongadas’ esaten zioten herrialde arrotz honetara heldu eta bertan integratzea nahi eta hala lortu zutenen bilduma bat da liburu hori.

Riomundo liburua testigantza bat dela esan dezakegu. Neurri batean autobiografikoa da, biografia nobelatua, Jon eta Jonen familiaren hainbat pasarte jasotzen dituen.

Alde batetik gertakari horien testuingurua aztertzen du: etorkinak gerrako galtzaileak ziren. Asko eta asko gorriak eta sozialistak. Etorkin horiek Euskal Herrira etorri ziren eta hau eurentzat lurralde arrotza zen. Etorrera masibo hori Euskal Herrira Espainiatik zetozte-

* Hitzaldi hau 2006ko martxoaren 23an eskaini zuen Jon Maiak, Bilboko ELAren egoitza nagusian.

nen agresio modura ikusi zen. Eurentzako, berriz, Espainiako beste lurralde batera zetozen. Hemen ez zen inolako integrazio estrategiarik egon etorri zen pertsona multzo haundi hori gureganatzeko. *Maketo, manchurriano, hezurbeltz* eta antzeko deiturak erabiltzen ziren haiek izendatzeko.

Azkenik, esango nuke integratzeko ahalegina egin zuten horiei omenalditxo bat ere badela, eta gaur egun ere ahalegin hori egiten dutenei, eta bereziki abuelori, abuelari eta osabari.

Gaurko juntadizo honek ez du izan nahi bilera literario bat. Jonekin aipatutako mezuak konpartitu nahi ditugu eta aukera egongo balitz berarekin eztabaidatu ere bai. Ikusten duzuenetz Jon bertsolari plantan etorri da, ez du batere paperik. Suposatzen da inprobisatu egingo duela.

Jon Maia Urretxun jaio zen 1972an. Gaur egun Zumaian bizi da, eta bere burua zumaiartzat dauka. Euskal Filologian lizentziaduna da eta Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalera hirutan iritsi da. Hedabideen munduan ere izen ezaguna da. Jon Maiak hainbat hedabidetan zutabe eta artikulua iritziak publikatu ditu. Musikan ere hor dabil *Karidadeko Benta* musika taldearekin titiritero gisara, batera eta bestera.

Gaur, berriz, *Riomundo* liburuan jasotzen dituen hainbat hausnarketa konpartitzeko etorri da.

Jon Maia

Eskerrik asko. Arratsalde on eta eskertzen dizuet bene-tan gaur hona etorri izana. Banituen zalantzak atzoko notizia haundiak* eklipsatuko ote zituen gauza txikiagoak, baina ikusten dut badagoela interes pixka bat gauza hauekin, eta ni ere eklipsatu nau atzoko notiziak, poztu nau eta pozten naiz zeren uste dut nire liburuaren mezua ere kontsonantzian datorrela bizi dezakegun aro berri honekin. Nire liburuarekin saiatu bainaiz zubi txiki bat eraikitzen. Historiari atzera begiratu eta etorkizunera zubi txiki bat eraikitzen saiatu naiz. Iruditzen zait aurrerantzean normalizazio baterantz joango bada herri hau hasi beharko dugula harreman berriak sortzen eta elkarrengandik urrun geundenak elkarrengana biltzen. Eta horretarako eskola ezin hobea da historiara begiratzeara akats berdinak etorkizunean errepika ez ditzagun. Nire liburuarekin saiatu naiz ekarpen bat egiten, ikuspegi berri bat ematen gure herriaren historian oso garrantzitsua izan den fenomeno bati buruz. Hain zuzen ere diktaduran (50-60. hamarkadan) Euskal Herrira masiboki etorri ziren emigranteen prozesuaren gaineko irakurketa berri bat egin nahi nuke. Horregatik esaten dut garrantzitsua dela historia behar bezala aztertzea, eta ni saiatu naiz begirada batzuk zuzentzen, eta nire ustez historiaren gure azterketan egon diren hutsune eta gabezia batzuk betetzen.

Azken finean gaur egun urruti ikus ditzakegun kolektibo batzuekin, esaterako Espainiatik etorri ziren emigrante horiekin, beharbada gauza gehiago dira batzen gaituztenak bereizten gaituztenak baino. Horregatik diot bizi dezakegun aro berri honetan bilatu behar ditugula zubiak. Zerk batzen gaituen bilatu behar dugu zerk

* **ETAk su-etena iragarri zuen.**

banatzen gaituen baino. Hori oso garrantzitsua iruditzen zait hemendik aurrerako gure eginkizunetan.

Ikusten duzuenez literaturari buruz gutxi hitz egingo dizuet. Niretzat liburu hau ez da helburu literario bat izan. Liburu hau adierazi nahi dudanaren bitarteko bat da adierazi nahi dudan ikuspegi bat adierazteko. Nire asmoa ez zen literatur lan haundi bat egitea edo horrelako ezer, baizik eta liburua behar nuen euskal jendeari herri honen historiaren ikuspegi matizatu bat emateko.

Extremadura, Zamora, Urretxu

Orain kontatuko dizuet nola iritsi naizen *Riomundo* liburua idaztera, eta pixka bat hori da nire bizitzaren eta nire familiaren ibilbidearen historia.

Fernandok esan duen bezala Urretxun jaio nintzen 1972an. Jaio nintzen extremeña eta zamorano baten seme izanik. Ama Extremadurako Cabeza del Buey izeneko herrikoa da, eta aita Zamorako Cañizal herrikoa. Baina nire aitak euskaraz ikasi zuen ni jaio orduko, ni jaiotzean nirekin euskaraz egin ahal izateko. Lau urte nituela ikastolara bidali ninduten. Nik ez nuen jakin urte asko pasa arte, baina gerora jakin nuen nire gurasoek zailtasun handiak izan zituztela ni ikastolan sartzeko. Zuzendaritzak esaten zien nire ama hizkuntza gaztelera bazen alferrik ari zirela. Inoiz ez omen nuen euskalduntasun hori barneratuko. Horrez gain ingurukoak ere nahastu edo kutsatu egingo omen nituen. Ikastola erlijioso bat zen, pasionistak.

Kontua da bilera batzuen ondoren lortu zutela ni ikastolara sartzea. Niretzat beti izan da normala gure etxean bizi izan dugun giroa. Nahiz eta extremeña eta zamorano baten semea izan gure etxean beti euskal abertzale giroa izan da. Beti ezagutu dut gure aita bileretan, atxi-

lotuta ere bai... Gure osaba ni oso txikia nintzela errefuxiatu zen eta giro hori beti oso normaltasunez ikusi dut. Inoiz ez dut pentsatu giro hori arraroa zenik. Hala ere gure etxean beti erdaraz egiten genuen. Gure ama auskalo zenbat urtetan ibili den gau eskolan eta AEKn baina inoiz ez zaio kaskezurrean sartu gramatika, etab...

Orduan etxean gazteleraz egin izan dugu denbora luzean, nahiz eta nire aitak euskaraz ikasi.

Zazpi urte neuzkala, nire aita, Orbegozo fabrikatik, istilu eta greba luzeen ondoren, kaleratua izan zen, eta Zumaian aurkitu zuen lana, eta hara joan ginen. Zumaian hasi nintzen konturatzen lehen aldiz nire "desberdintasunaz". Nik erdaraz pentsatzen nuen, eta hitz egin ere, ez nuen nire ikastolako lagun berriek bezala hitz egiten. Oso ondo gogoratzen naiz inguruan ume guztiek hitz egiten zutela hitanoz edo hika eta nik ez nekiela. Konpleju handia sortzen zidan horrek. Nik denei zuka hitz egin behar nien nik hika ez nekielako eta besteek niri hika. Horrek ematen zidan desberdintasun sentazio bat. Herri berri batera joan eta konturatu nintzen ez nintzela besteak bezain euskaldun-edo. Nik horrela pentsatzen nuen behintzat.

Bertso eskola

Hamar urterekin bertso eskolan hasi nintzen. Ikastolan bertso zaharrak ikasten genituen. Bertsolari zaharren abentura eta kontuak ere bai: Txirrita, Pedro Mari Otaño, Udarregi, Pello Errota... eta hori asko gustatzen zitzaidan. Guri beti galdetzen digute: "zuri nondik datorkizu bertsoarako zaletasuna? Etxeko tradiziotik?" Nire kasuan ez noski. Niri bertso eta bertsolari zaharrak gustatzen zitzaizkidan. Ez nintzen inoiz bertso saio batera ere joan bertso eskolan hasi arte. Orduan oraindik

ere erdaraz pentsatzen nuen, baita bertso eskolan hasita nengoenean ere.

Gogoratzen naiz nire lehenengo plazan, eskolarteko txapelketa batean: Zumaiako zinema beteta, hamaika urte neuzkan, eta jarri zizkidaten lau oinak *etzi*, *etsi*, *erakutsi* eta *hautsi*. Horiek ziren bertso bat egiteko lau errimak. Ez zaizkit oraindik ahaztu trauma dexentea izan nuela. Ez nekien zer zen *etzi*. Ez nekien “etzi” denbora zela eta “etsi” etsipena. Ez nituen bereizten, eta duda gehiago ere baneuzkan: “etzi”, “herenegun” eta “etzidamu” ez nituen kokatzen, ez nituen bereizten eta bertsoa bota beharra neukan. Ezin nuen “publikoaren komodina” erabili. Zerbait erabaki behar nuen eta bertsoa bota behar nuen. Azkenean hau bota nuen: etxera joateko esan zidaten etzi. Hori gainera grabatuta egongo da; nire lehenengotariko bertsoa hori izango da.

Gogoratzen naiz baita ere bertso eskolako merienda bat izan genuenean, Zumaiako soziedade batean, esan zidatela: Jon ekar ezak *bautzia*. Bautzia? (Bautzia bizkaieraz berakata da). Pentsatzen eta pentsatzen aritu nintzen zer ote zen. “Oso gauza normala izango da, ba!” pentsatzen nuen. Horrela eskatu didate: “ekarri bautzia”. Hain gauza arrunta zela pentsatuz iruditzen zitzaidan ezingo nuela galdetu. Lotsa ematen zidan. Ez dakit egoerari nola egin nion aurre baina gaizki pasa nuen.

Gaizki pasatzen nuen zeren nik ere nabaritzen nuen nire ama hizkuntza ez zela euskara eta “bautzia” bezalako hitzekin, alegia, etxean soilik erabiltzen diren hitzekin, akonplejatu egiten nintzen. Guk etxean gazteleraz egiten genuen eta horrelako hitzak ez genituen erabiltzen.

Nire adoleszentsziko konplexurik handienetako bat abizenena izan da. Nire lehen abizena Maia da. Nahiko abizen abstraktoa da. Pentsatu daiteke euskalduna ere

badela, nahiz eta nire aitona Zamorako karnizero bat izan. Bigarrena *Soria* da, hirugarrena *Herrero*, laugarrena *Valderrama*... Eta ni laugarrenerarte ez naiz inoiz iritsi, ez dut inoiz esan. Eta oso gaizki pasatzen nuen eskolan edo kiroletan izen-abizenen zerrendak pasatzen zituztenean. Jon Maia Soria... Soriara ere ez nintzen iristen. Eta askotan entzuten nituen inguruan lagunak zortzi eta hamabi abizenak karrerillan esaten: Agirre...

Diferente sentitzen nintzen eta konplexua neukan. Gainera beti entzun izan dut gure inguruan (Zumaia herri txikia eta nahiko euskalduna da) kanpotarrei buruz *koreanoak*, *manchurrianoak*, *hezur beltzak*, *belarri motxak*... esaten. Termino horietan hitz egiten zen. Eta horrek eragiten zuen nigan nire familiaren jatorria tapatzea. Konplexua eta nire familiaren identitate hori estaltzera eramaten ninduen. Nik ere erabili izan ditut hitz horiek zeren ni gaztetan oso abertzale eta oso erradikal sentitu izan naiz. Eta ez nuen inork ni 'belarri motxa' edo 'manchurrianoa' nintzela pentsatzerik. Hori dela-eta beti tapatzen aritu izan naiz.

Koska hori pasa nuen, eta bertsoan gauzak nahiko ondo atera zitzaizkidan. Hurrengo urtean Eskolarteko Bertsolari Txapelketan finalean sartu nintzen.

Gogoratzen naiz hamairu urterekin anaiari hau esan niola: "Guk gure artean ez dugu gehiago gazteleraz hitz egingo". Gu anaiak ginela, Euskal Herrian bizi ginela, eta Euskal Herrian bi anaiak elkarrekin ezin dutela erdaraz hitz egin esan nion. Gure anaia ni baino bost urte gazteagoa da. Orduan zazpi urte-edo izango zituen. Auskalo zer pentsatuko zuen nitaz baina oso ondo gogoratzen naiz hori nola esan nion. Ni ordurako bertso eskolan nenbilen, sozialki ere konturatzen nintzen ez zela polita jendeak ikustea ni anaiarekin gazteleraz. Hori

erabaki nuen eta gazteleraz pentsatzetik euskaraz pentsatzera eman nuen saltoa ere ez zen inkontzienteki izan. Lan handia eskatu zidan salto horrek. Gauza horiek zaila da konturatu gabe egitea. Nahiz eta inguru euskaldun batean bizi zure barruko hizkuntza, zure intimidadea interpretatzen duzun hizkuntza, bat baldin bada oso zaila da aldatzea. Eta ni gogoratzen naiz nola pentsatzen nuen ametsetan euskaraz egin arte egin behar nuela esfortzua. Behin ametsetan euskaraz egitea lortuko banu, nik erabaki gabe, inkontzienteki etortzen zaizkizun pentsamentuak euskaraz izan arte egin behar nuela ahalegina. Autobusa hartzera bazoaz eta “¡mekauen dios que se me escapa el autobus!”... Pentsatu gabe etortzen zaizkizun reflejoak ezta? Ba, horiek euskaraz sortzen ziren orduan lortuko nuen nire burua euskalduntzea. Eta esfortzu handia egin nuen horretarako.

Bertsotan jarraitu nuen eta hemezortzi urterekin Errenteriako Xenpelar saria irabazi nuen. Gazteen mailako txapelketa garrantzitsu bat da. Gogoratzen naiz, oso ondo gainera, gurasoak han zirela finala entzuten. Nik txapela jantzi eta agurtzera etorri zirela gogoratzen dut. Hurbiltzen ikusi nituenean bizkarra eman nien eta ez nien kasurik egin. Lotsa ematen zidan euskaldun giro hartan, ni txapeldun izanda, gurasoekin gazteleraz egiteak. Eta ez nien kasurik egin. Horrelako gauza itsusiak egitera ailegatu naiz.

Horrelaxe segi nuen nire konplexu horiekin. Oso jende gutxik zekien nire familiaren jatorriaz, oso jende gutxik zekien nire bigarren abizenetik aurrera... Inguruan bai batzuk, ordea. Gogoratzen naiz Itziarko bertso afari batean, ni kantuan nintzela, jarri zitzaidan tipo bat aurrean mozkortuta (gerora askotan ikusi dut emaztearekin eta seme-alabekin paseatzen Zumaian) niri buila-

ka: *manchurriano puta, joan hadi hemendik... Castellano puta...* Etengabe bertsoa bukatu nuen arte.

Gaur egun ez lidake batere afektatuko, baina hemezortzi urterekin ahulagoa nintzen. Konplejoz betea nengoen eta horrek ere, beste gauza askoren artean, afektatu egin zidan.

Aurrera egin nuen eta Gipuzkoako Txapelketa batean kalera joan nintzen lehenengo kanporaketan. Maiteminduta nengoen Bilboko Gran Viako neska jator batekin eta bertsoaritza ez zitzaidan batere inporta. Oso despistatuta nenbilen, eta kalera. Beraz, hurrengo Euskal Herriko txapelketarako ez nengoen sailkatuta.

Egun batean Euzkitzek deitu zidan ez zuela parte hartu behar eta nik aukera izango nuela. Orduan prestatzen hasi nintzen berriz ere trenera igotzeko aukera nuelako. Eta asko prestatu nintzen. Prestakuntzan saiatzen gara urte osoan egiten ez duguna egiten: irakurri... Dena bi hilabetetan egin nahi duzu. Nik Gasteizko ikasleen pisuko horma denak poemaz enpapelatu nituen. Pasiloa Bertolt Brechten olerkiekin enpapelatu nuen. Komunean, sukaldean... Kaka egiten ari nintzela ere aurrean neuzkan poemak. Etengabe irakurtzen aritu nahi nuen. Nahiko ondo atera zitzaidan. Prestakuntza horrekin ari nintzela begiak zabaldu zizkidan poema batekin egin nuen topo. Bertolt Brechten liburu txiki bateko olerki bat da. Bertan dio bere herria maite duen guztia, bere gogoaren kontra, uztera behartuta dagoen pertsona ez dela emigrantea soilik, hori desterratua dela. Bere gogoaren kontra eta bortxaz erabaki behar izan duela alde egitea maite duen guztia utzita. Poema hori irakurri nuenean burura etorri zitzaidan lehenengo gauza izan zen: nik ez dut inoiz horretaz pentsatu. Beharbada hori izango da nire familiaren historia.

Esan dizuedan bezala nire etxean bizi zen egoera normaltzat jotzen nuen, normal bizi izan nuen. Nik ez nuen sekula pentsatu zergatik etorri ote ziren abuelo eta abuela Extremadura eta Zamoratik ume txikiak hartuta Euskal Herrira. Ez nuen inoiz pentsatu zergatik. Inoiz ez nuen pentsatu zamorano eta extremeña batek zergatik bidali zuten euren semea ikastolara. Niretzat normala zen eta ez nuen pentsatu hori berezia zenik. Kontutan hartu behar dugu 1975. urtean ikastolak ez zirela gaur egun direnak. Pixka bat egiten eta sendotzen ari ziren proiektuak ziren. Beraz, askoz errezagoa litzateke sendotuta datorren beste edozein irakaskuntza eredutan sartu izan balute beraien semea ezta? Eta ez abertzaleen artean sortutako proiektu baten esku uztea.

Gerrako galtzaileak

Baina ez nuen horretaz pentsatu. Eta lehen aldiz orduan pentsatu nuen nire abuela eta abuelok ere euren herria eta lurra maiteko zutela. Orain hemen bizi dira, baina... Ez gara euskaldunak bakarrik gure herria maite dugunak. Ez dira euskaldunak bakarrik sentimentu hori sentitzen dutenak euren herriarekiko. Extremeño batek euskaldun batek bezainbeste maita dezake bere lurra. Beraz, nolaz etorri dira nire aiton-amonak dena utzita? Orduan hasi nintzen enteratzen nire aitonaren historiaz.

Nire aitona ordura arte horixe zen: beste edozein ume-rentzat bere aitona dena. Eta hasi nintzen jakiten republikanoa zela, gerra galdu eta kartzelan egon zela... Kartzelatik irten eta bere herrian seinalatuta bizi izan zirela eta miseriatik eta pertsekuzio politiko horretatik ihesi, maite zuten guztia utzita, hona etorri zirela.

Txapelketa horretan, tonto-tonto, kanporaketak pasa eta Euskal Herriko finalera iristea lortu nuen. 1997. urtea

zen. Belodromoan. Niretzat hori emozio izugarria izan zen gauza askorengatik. Batetik hainbeste miresten nituen bertsolari zahar horiek egondako lekuan ni nengoelako: Txirrita, Basarri, Uztapide, Lazkao-Txiki, Lopategi, Amuriza... Horiek denak finalean kantatutako bertsolariak ziren. Ni bezalako tipo bat haiek egon ziren lekuan egoteak emozio handia sortzen zidan.

Eta bestetik sentitu nuen hor biltzen edo ixten zela ziklo bital bat. Bai nirea eta baita nire familiarena ere. Nirea zen hain zuzen euskaraz ikasi eta Euskal Herriko txapelketa nagusiko finalera arte zihoan ziklo bat borobiltzen zelako. Eta batez ere nire familiarena, ezta? Nik ordura arte renegatu eta ukatu nuen historia hura. Hasi nintzen apreziatzen poema horrez geroztik, (gero esaten dute literaturak ez duela ezertarako balio, baina...) baloraten eta buelta ematen lotsatik harrotasunera aitonamonengandik hasi, gurasoengandik segi eta final hartara iritsi bitarteko integrazio ibilbide bat gauzatzera zihoalako egun horretan.

Inon leku egokirik baldin bazegoen huraxe zela pentsatu nuen nik nire familiaren aurrean zor hori kitatzeko eta errekonozimendu bat egiteko milaka pertsonen aurrean baina era berean oso intimoa. Egin zuten ahalegin horri aitorpen bat egin nahi nion. Ez nien esan hori kantatuko nuenik eta erabaki nuen azken agurrean kantatzea. Ez nuen lehen agurrean kantatu nahi. Inork ez zekienez nire familiaren jatorriaren berri, banekien horrek inpaktoa eragingo zuela entzulearengan eta epaimahaikoarengan, eta ez nuen nahi inork ikusterik hori plus bat bezala, ezta alderantziz ere. Horregatik lan guztiak egin eta gero despedidako bertsoan esan nuen. Han kantatu nuen bertsoa hau zen:

Ama Extremadura
aita Zamoratik
abuela ta abuelo

haien aurretik
 herri hontan sustraitzen
 asmatzeagatik
 nik'e maite dezaket
 guztien gaineratik
 euskeraz badakit
 bertsoz darabilkit
 dena zuengatik
 halaxe dagokit
 denek kantatu dute
 nere ahotik.

Orduan hori bota nuen eta lasai geratu nintzen. Egunean bertan, asteetan eta ia gaur arte nire egoera berean sentitu izan den askorengan identifikazio bat ikusi nuen. Egia da jende askok bizi izan duela identidade konplexu eta borroka hori bere baitan. Gutun asko jaso nituen. Erreakzio handia sortu zuen. Ni asko bete ninduen. Nik beti esan izan dut hori ez dela nire bizitzako bertsoa, baina bai nire bizitzarena.

Hor itxi zen nire bizitzako ziklo bat. Lehen aldiz bertso horretan agertu zen *Riomundo*. Eta nire buruari egiten nizkion galdera horiek egin nizkionetik erantzunen bila ibili naiz eta uste dut erantzuna liburua dela. Nik ondo-ri hau atera dut: ni bertsolaria naiz Albacetetik hasten den ibilbide bati esker. Zergatik? Nik uste dut nire amak ikastolara bidali ninduela etxetik zekarren kontzientzia hereditario bati esker. Kontzientzia hori nire aitonaarena da. Nire aitona errepublikanoa zen eta inoiz ez du ukatu bere izaera hori. Eta nire ama eta osabak etxean giro hori izan dute beti. Oso espiritu libertarioko gizona zen eta espiritu hori transmititu die seme-alabei. Nire aita ere etorri zenean, hamasei urterekin fraile izateari utzita, berehala gau eskolatan ikasten hasi zen. Beraiek erabaki zuten ni ikastolara bidaltzea, eta garai hartan seme bat

ikastolara bidaltzen zuten gurasoek kontzientzia pixka bat bazuten. Eta nik uste dut kontzientzia hori aitonaren traiektoriatik datorrela. Horregatik esaten dut ni bertso-laria naizela Albacetetik hasten den ibilbide baten ondorio bezala. Aitonak alabari eta alabak semeari.

Ez da kasualitatea gure familian gertatu dena. Gure aitona kartzelan egon zen frentean borroka egin ondoren eta haren semea diktaduran PCn hasi zena, Francoren diktadurarekin erbesteratu zen. Amnistiarekin etorri zen eta berehala berriz errefuxiatu zen. Hogeita bederatzi urte egon da errefuxiatuta, eta orain dela urte eta erdi sartu dute kartzelan; Parisetik gorako Osny kartzelan dago.

Gure aitona bere amaren hiletara joan zenean atxilotu zuten. Denek esaten zioten ez joateko, baina harek joan egingo zela esaten zuen. Ama zuela eta joan egingo zela zioen. Denek zekiten herriko eta aldameneko herrietako elizak berak txikitu zituela. Hala ere joan egin zen, eta hileta bukatu zenean Guardia Zibilek atxilotuta eraman zuten.

Gure osaba errefuxiatuta zegoela abuelo hil zen. Etorri izan balitz, bere aitak bere amarekin egin zuen bezala, gure osaba ere atxilotuta eramango zuketena. Gure aitona komunista izateagatik eskubide zibilik gabeko pertsona zen diktaduran. Eta ondoren bere ilobak izan gara bozkatzeko eskubiderik gabe utzi gaituztenak. Ni neu zerrenda beltz horietako batean nago. Orain arte behintzat ezin naiz aurkeztu. Etxe berean hainbeste kasu paralelo gertatzea, ia-ia kalkatuak, hirurogei urteko distantziarekin, kasualitate handia dela iruditzen zait. Horregatik uste dute gure aitonarekin Albaceten hasten den kontzientzia hori beti mantendu izan dela gure familian. Eta Euskal Herrira etorri zirenean ere posizio

bat hartu zuten. Hemen ere ikusi zuten Albaceten eta Extremaduran ikusi zuten diktadorearen hankak agintzen eta zapaltzen zuela. Beraiek han izan zuten posizio libertario horri eutsi zioten hemen ere, bide zailenetik jarraitzea erabaki zuten. Hori da nik egin dudana lotura. Horregatik uste dut dagoela gure osaba preso, eta horregatik uste dut naizela ni ere bertsolari. Ibilbide luze bateko pauso askoren azken ondorio bezela. Beharbada nahiko extremo, desgrazia nahiko extremo.

Horregatik min handia egin dit, oro har, eta badakit nik esaten dudana dena matizatu daitekeela, euskaldunak kanpotar horiekiko izan duen begirada sinplista eta arinak. Nire ustez ez da emigrazio fenomeno hori aztertua izan. Nik uste dut etorri zirenetako asko eta asko gerra-ko galtzaileak izan zirela. Eta gerra irabazten duenak ez du hainbeste arrazoirik herria uzteko. Asko eta asko izan ziren sozialistak, komunistak... eta etorri ziren ezagutzen ez zuten lurralde batera. Ez dut esango oraingo afrikarrak eta arabiarrek bezalakoak zirenik baina ia-ia.

Orain distantziak beste eskala batean ulertzen ditugu eta komunikazioa ere askoz errezagoa da, baina berrogeita hamargarren hamarkadan Extremadurako herri txiki batetik Euskal Herrira datorrena ia-ia arabiarra da. Beste kultura bat da, beste paisaia eta beste errealitate bat da. Askok ez zekiten nora zetozen ere.

Herri guztietan ezagutzen ditugu auzoak, emigranteen auzoak. Izan daiteke 'poblado', izan daiteke 'manchuria', 'mundo mejor', 'casas baratas'... Sartzan zituzten denak batera, kanpokaldeko auzoetan noski, eta beraien komunitateak osatzen zituzten. Auzo asko daude ia denak kanpotarrak direnak. Hiri handietan ez dakit zehatz esaten, baina herri txikietan nabarmenak dira auzo horiek.

Gaur egungo emigranteentzat ez badaukagu herri bezala integrazio estrategiarik diseinatuta, zer ote zen diktaduran etorri ziren milaka emigrante horientzat? Ze erreztasun ote zeuzkaten haiek herri honen nortasunaren berri jasotzeko?

Aitak kontatua da trenetik jaitsi eta berehala, enpresa handietako enkargatuak egoten ziren karpetaekin, hartzen zizkietela izenak fabrikan lanean hasteko. Eta liburuan esaten dut askok lehenago ikasten zutela fabrikaren izena herriarena baino.

Nik askotan entzun dut nire inguruan hauei buruz gisa honetakoak esaten: "Bizitza guztia Euskal Herrian eta ez du euskaraz hitz bakar bat ere ikasi!" Eta nik nire abuelarengan pentsatzen dut. Nola ikasiko zuen nire abuelak euskaraz? Nire abuelak laurogeita hamar urte dauzka eta oraindik bere herriaz gogoratzen da. Eta kanpora emigratu duen euskaldun bat, Ameriketara, Suizara, Alemaniara... edonora doala ere jubilatzen da eta Euskal Herrira itzultzea erabakitzen du azken urteak hemen pasatzera eta ia-ia poetikoa da. Horrek barruan du Euskal Herria, oraindik ez da bere herriaz ahaztu. Baina extremeño batek bizitza osoa esplotatuta pasa eta aurreztu duen diruarekin bere jaioterrian etxe bat egiten du, eta hiltzera bere herrira bueltatzea erabakitzen duenean askotan esan izan da: "horrek dirua hemen egin du eta orain badoa 'a la casa del pueblo'. Hemen aberastu eta badoa berriz Extremadurara jubilatuta". Eta nik pentsatzen dut pertsona guztiak berdinak garela, eta denok dugula nahi dugun lekuan bizitzeko aukera. Eta zure herrian hiltzeko gogoa baldin baduzu, zergatik ez, ezta? Euskaldunei onartzen diegu eta besteei ere onartu beharko genieke.

Nik esan nahi dudana da oso errez egiten direla akusazioak. Hauek ez direla integratu eta ez dakit zer... Baina inork ez die lagundu. Ez dago integrazio estrategiarik. Orain ez badaukagu, diktaduran zer ote geneukan, ez da? Horregatik nik uste dut integratu den jendea izan dela determinazio pertsonalagatik. Eta ahalegin indibidualak izan dira, esfortzu handiak eginez kontzientzia bat hartu dutenak, ziurrenik lehendik zekarten kontzientzia horri esker. Nire familiaren kasuan nik nabarmen ikusten dut kanpotik ekarritako kontzientzia bati esker integratu garelara. Ezkerreko kontzientzia bat edukitzeagatik bihurtu gara abertzale. Hemen abertzaleak ziren zapaldutakoak eta ezkerrekoak Albacete eta Extremaduran zapalduak zirelako. Horrek bihurtu gaitu ezker abertzaleko. Gaur egun dirudi abertzaletasunak prentsa txarra duela eta atzerakoia dela gaur egungo munduan. Eta eskubikoak progresistak eta munduko hiritarrak omen dira. Nik konprobatu dut, gure kasu errealean, ezkertiar izateagatik bihurtu garelara abertzale. Eta kontzientzia libertario eta aurrerakoi bat izateagatik lortu dugula abertzale izatea ere. Horregatik nik inoiz ez dut zalantzarik izan abertzaletasuna ez dela atzerakoia.

Kultura arrotzak

Eta iruditzen zait emigrazio hori ez dela behar bezala aztertu eta hemen garrantzia handia izan du. Berriz aztertu beharko litzateke egungo emigranteekin akats berean eror ez gaitezen. Ezin da begirada sinplistik egin hain gertakizun garrantzitsuen gainean. Iruditzen zait integrazio estrategia falta hori ari garelara pairatzen gaur egun ere. Horregatik esaten dut oraindik ere bi mundu daudela Euskal Herrian. Etorri eta integratu ez ziren horiek guztiak eta euskaldunak. Bi kultur komunitate daude elkarren ondoan ezezagunak. Jende

asko dago, milaka eta milaka dira, Bernardo Atxaga jaio zenik ere ez dakitenak. Edo Benito Lertxundi existitzen denik ere. Euskal kulturaren bi izen ezagunenetakoak esatearren. Eta gu ere, konbentzituta nago, ez garela saiatu batere manchurriano, belarri motx, koreano horiek ezagutzen. Beraien historia ezagutzen. Errezena da pentsatzea gure kontura dirua egitera etorri direla, edo Euskal Herria inbaditzera. Ba diktadura batean etorri zirelako eta ziur aski diktadurak ere erabili zuen emigratio hori herri honen errealitatea distorsionatzeko ere, baina errezena horrela pentsatzea da, noski. Topiko asko daude manchurrianoen inguruan.

Horregatik neukan motibazioa liburua idazteko eta historia horri begirada berri bat eskaintzeko, eta saiatu naiz emigratio hori beraien esperientziatik kontatzen. Beraien bizipenetatik. Nik ezagutzen dudalako barrutik haien esperientzia eta ezagutzen dudalako barrutik hemengoen begirada. Eta bi begirada horiek erabiltzen saiatu naiz euskaldunen artean 'koreano', 'manchurriano' terminoekin ezagutzen diren jende horiei buruzko ikuspegi berri bat emateko. Bi munduen ezagutza horretarako erabiltzen saiatu naiz. Ahalegin txiki bat da ez delako liburu handi bat. Gainera oso sinplea da. Ez naiz batere enroilatu. Ez naiz teorizatzen hasi. Ez dut uste hamar lerro ere badaudenik diskurtso horren inguruan. Gauzak botatzen ditut, hari muturrak... Jendeak pentsatu dezan. Horregatik ematen diot liburuan garrantzia handia iraganari. Askok esan didate Euskal Herrira etorri eta hemengo integratio prozesua espero zutela.

Baina niretzat garrantzitsuena da ulertzea jende horrek baduela historia bat, eta kasu askotan oso gogorra. Baita PSOEko eta PCEko milaka zahar horiek, hemen bertan bizi dira asko, historia bat dute atzean. Eta ondo begi-

ratzen badugu gauza gehiago dira batzen gaituztenak bereizten gaituztenak baino.

Nik esaten dut adibidez: ez dut diskurtsorik egiten ez nuelako inor idealizatu nahi, ezta nire aitona ere. Ez nuen apologiarik egin nahi. Aitona eta amona zibiletik ezkondu ziren 1935ean. Errepublika garaian. Oraindik ere euskaldun gehienak elizatik ezkontzen dira. Hala ere nik antz handiagoa daukat zibiletik ezkondu ziren nire aitona-amonekin. Nire pentsamenduarekin bat gehiago egiten duelako logika horrek.

Haietako asko ziren jornalariak. Han ez zegoen industriarik. Lurretik eta lurrarekin bizi zirenak ziren. Nire amonak-eta olibondotan egiten zuten lan señoitoen lurretan. Aristokraziaren latifundio handietan. Etorri ziren Euskal Herrira eta bat-batean fabrika handietan sartu behar izan zuten. Sutegi handiak ziren fundizioetan. Gaur egun lan istripuetaz hitz egiten badugu, zer ote zen orduan? Hamabi-hamairu urteko haurrak zortzi-hamar-hamabi ordu lan eginez. Gaur egun jendea hiltzen bada, orduan zenbat hilko ziren batere garrantziarik eman gabe? Nire aitak esaten dit askok buelta ere egin zutela fabrika horietan ezin zutelako aguantatu. Beti aire librean ohituak ezin omen zuten fabrika horien infernuetara egokitu.

Momentu batean liburuan nire aitona esaten dio osabari: "Begira, zure amaren herrian, Extremaduran, halako eta halakoren familiak direnak, milaka langile dituztenak, hemen hauek dira: Orbegozo, Aparicio... Hemen ere hiru mila langile dituzte". Eta diktaturak ematen zien kobertura aprobetxatzen zuten langileak esplotatzeko. Horregatik nik gaur egun entzuten dudanean enpresak herri honen alde egindako ahaleginaz ba... Batzuk izango dira, baina beste askok beraien inperioak

diktaduran eraiki zituzten. Eta diktaduraren askatasun falta hori aprobe txatu zuten. Oraindik ere enpresa handiak dira asko, eta horiei inork ez die ezer eskatu. Ez dute zorrik.

Nire aitak kontatzen du Guardia Zibilen kuartela Orbe-gozok ordaindu zuela Zumarragan. Hiru mila langile, hiru mila ardi baldin badituzu, artzainak ere behar dituzu ezta? Horrelako paralelismoak egiten saiatu naiz. Oligarkia, aristokrazia, extremeñoa izan daitekeena... Euskaldun enpresari familia handi horiek... Etorri ziren langile asko zeuden horrelako egoeratan. Nire aitonari txokantea egiten zitzaion hemengo elizkoitasuna ere. Ezin zuen ulertu langile bat gurutzearekin. Frankismoari babesa ematen dagoen eliza langileak esplotatzen dituen erregimen bati men eginez.

Ba, noski, denok jaiotzen gara jaiotzen garen garaian eta lekuan. Eta aitonarentzat arraroa zen hemengo erlazio hori: langile eta elizkoi. Nire osaba PCEn egon zen eta CCOO ere bai urte askotan. Eta Zumarraga inguruan nagusi ziren. Liburuan badira bi pasarte nire osaba abertzale bihurtzeko klabe izan zirenak. Bat da trantsizioan PCEk eta PSOEek hartu zuten postura politikoa: Francok lotuta uzten zuen erregimen *status quo* berri bati nola makurtu ziren. Eta liburuan dagoen pasarte bat (kontatzen dudana oro egia da) hau da: PCEko komitean zeudela iritsi zen zirkular bat esanez Juan Carlos printzea Loiolara zetorrela bisita batera, eta militante denak errepidera irten behar zutela ongi-etorria egitera. Nire osabak esan zuen: "Ni hortik ez naiz pasako. Gu ez al ginen ba komunistak?"

Eta bestea Txiki eta Otaegiren fusilamentuak dira. Berak esan dit, kartzelara egin dizkiodan bisitetan, dagoeneko liburu idazten ari nintzela, nik ere trantsizioa nola izan

zen jakin nahi bainuen, bera nola igaro zen PCetik abertzaletasunera. Eta esaten zidan fusilamentuen aurkako mobilizazioetan nahastu zirela asko kalean abertzale eta ez abertzale. Eta hemengo arazo nazionala kalera indar handiz atera zela, eta hor izan zituela lehen harremanak mundu horrekin. Horiek izan ziren klabeak nire osaba abertzaletasunera pasatzeko, eta gero LABen sorreran hartu zuen parte. Eta berak esaten du hori oso garrantzitsua izan zela, zeren abertzaletasuna ikusten zuela burgesia eta elizari lotua. Beharbada begirada sinplea izango zen, baina berak horrela ikusten zuen. Eta beretzat oso garrantzitsua izan zen bere burua sozialistatzat zuen sindikatu bat sortzea. Hortik egin zuen zubia. Bestela oso urruti sentitzen zuen abertzaletasuna.

Hori guztia esanda, esan ditzaket gauza gehiago baina ez naiz gehiago luzatuko, saiatu naiz adierazten eta erakusten manchurriano horiek ere badutela kultura. Nire amonari jasotako koplak... Momentu batean nire abuelak esaten du: “¿Que feas son las mujeres de aquí, no? Esas narices...” “Kokotzak...” Hori esaten zuen nire andregai horregatik. Eta nik esaten nion: “Que no son feas, que son así. Que son diferentes”. Guk castellanoak ikusten ditugunean ere berehala ohartzen gara: “Ene ze mutur beltz duen horrek! Horrek dauka Guardia Zibil muturra!” Ba nik hori ez nuen idatzi Euskal Herriko neska guztiak niri mania hartzeko, baizik nahi nuen adierazi beraientzat ere gu desberdinak ginela. Lur berri batera zatozenean ezer ez da erreza, dena da txokantea. Beraientzat gure fisionomia desberdina da. Edertasunaren kontzeptua diferentea zuten. Horrelako gauzek txorakeria dirudite baina...

Bertsolaritza ere aipatzen dut zeharka. Hiru urterekin agertzen naiz ni liburuan. Ez neukan agertzeko asmorik baina...Historia jarraitu behar nuen gure osaba erbeste-

ra joan arte eta hor jada nik jaio behar nuen. Gure aitonari beti gustatzen zitzaion ni euskaraz hizketan jartzea: “Cántale, cántale algo a este casero para que vea cómo sabes hablar todo en vasco”. Beti horrela aritzen zen:

-Dile algo.

-¿Qué le voy a decir yo?

Hori hamabost urterekin ere bai: “Habla, habla... ya vas a ver como habla el ñaco en vasco”.

Liburuan agertzen da horrelako pasarte bat. Eta baserritarrak erantzuten omen dio: “Hau behintzat posturagatik bertsolaria aterako da!”

Eta amonak esaten omen du: “Versolari? Qué es eso?”
Eta baserritarrak erantzun: “Pues esos que cantan en las viejas romerías...”

Eta amonak: “No, por favor, no. Esos aburren hasta a un muerto. Eso es horrible!”

Nire amonak hori esaten du beti: “Con la gracia que tienen los andaluces, la manera de cantar y bailar. Escuchar al Fary, ¡no me vas a comparar!”

Fary ta Juanito Valderrama dira gehien gustatzen zaizkionak. Liburuan gehiago ere agertzen dira. Gure aitonamonen etxeko diskoko izenak jarri ditut. Ni saiatu naiz adierazten beraientzat ere ez dela erreza, dena berria zela, dena desberdina. Horrelako gauza txikiak saiatu naiz jartzen, eta azken finean nik nahi dudana da euskaldunek matizatu behar dugula gure begirada gertakizun historiko horrekiko eta beste konprentzio bat izan beharko genukeela eta fenomeno hura aztertu rigore pixka batekin, eta haien lekuan jarri. Gu hemendik joatera behartuta bageunde... Bapatean ehun mila euskaldunek hemendik joan beharko bagenu... Integrazioa

oso ur zailak direla inork laguntzen ez bazaitu eta sufri-mentuzko historia bat dagoela hor atzean. Rebisatu egin beharko genuke hori guztia.

Erabaki politikoa

Gauza bat esatea ahaztu egin zait: PSOE eta PCEk transizio garaian hartu zuten bidea klabea izan zela hain zuzen. Gaur egungo banaketa soziala, kultura eta politikoa ulertzeko klabea izan zen. Sozialista horiek guztiak, trenetan lanera zetozenak, gerrako galtzaileak, trantsizioan PSOE eta PCEk hartu zuten jarrera hori, herri honen eskubideak errebindikatzeko aukera historiko hartan, Euskal Herriari bizkarra ematea erabaki zutenean bi partido handi haiek, nire ustez, beraien masa sozialak utzi zituzten euskalduntasunetik kanpo. Azken finean denok jarraitzen ditugulako markatzen zaizkigun pauta batzuk. Eta nire ustez klabea izan da bi alderdi horien klabea transizioan eta hartutako bidea Euskal Herriari eta euskal kulturari bizkarra emanez, beraiek mugitzen zuten masa sozial guztia zergatik ez den integratu ulertzeko.

Horregatik esaten dut integratu direnak determinazio pertsonalez eta ahalegin indibidualetan integratu direla. Bestela nik askoz gauza komun gehiago ditut garai hartako komunista sozialista haiekin egungo abertzaleekin baino. Mundua ulertzeko moduan, bizitza sentitzeko moduan... Horregatik herri hau normalizaziorantz baldin badoa benetan erlazio berriak egiten hasi behar dugu. Adibidez: españolek bat egin dute espainiartasunean, alegia, diktaduraren garaian Guardia Zibilek erreprimitzen zituzten sozialistak, baina Euskal Herrian sozialisten buruzagitzak esan die "bat egin behar dugu espainiartasunean". Eta borrarroek eta biktimek bat egin

zuten eta bat egin dute. Guk ere abertzaletasunean bat egin dugun bezala gauza askotan, nahiz eta haien kasuan borrero eta biktima izan. Kontradiktorioa da beraien komunitatea ulertzeko modua ere. Herri hau normalizaziorantz joaten denean nik uste dut gure arteko harremanak normalizatuko direla, eta bat egiten dugun puntutan kointziditu egin behar dugula, eta zubi txikiak eraikitzen hasi behar dugu. Historiaz ikasi dezagun berriz akats berdinetan eror ez gaitezen, adibidez, orain datozen emigrante guztiekin ezta? Hori da nire ustez Riomundoren esentzia.

Galde-erantzunak

-Jon, amaitu duzu hitzaldia hasi duzun bezala, esanaz zubi txikiak eraikitzen hasi behar garela. Batzen gaituena urruntzen gaituena baino gehiago landu behar dela. Eta gogoratu naiz Durangon idatzi zenidan eskaintzarekin liburua erosi nuenean: gure ibaiek bat egin dezatela ibai honen zubipean. Zure konplexuak gainditu dituzu. Orain eraikuntzako obsesioak dituzu zubiekin?

Jon Maia:

-Ni saiatzen naiz baikorra izaten. Horregatik nahiago dut bat egiten gaituena landu. Nire liburua espiritu horrekin idatzia da. Euskal irakurleei zuzendutako liburua da, nahiz eta kanpotarrei egindako omenalditxo bat izan. Nahiko nuke bere begirada aldatzea etorkinekiko eta matizatzea, eta ziur nago arrazoi gehiago aurkituko dituztela elkartzen dituztenak bereizten dituztenak baino.

-Bakarrik komentatu nahi nizun kontatzen egon zaren historia nik oso ondo ezagutzen dudala. Nire senarra ere Portugaleten jaio zen. Erdaldun jaio zen. Aita extremeñoa du. Bere ama erdi gallego eta erdi euskaldun baten alaba da. Oso kuriooa izan da kontatu duzunean. Inñigoren aiton-amonak ere galtzaileak ziren. Extremaduratik etorritako errepublikano erreprimitu batzuk ziren. Kontatu duzun historia hori nik Inñigorengan islatuta ikusi dut. Berak ere euskalduntze prozesua bere kabuz egin zuen. Bera gurasoek ez zuten ikastolara bidali. "Eskola puta" horretan ez omen zelako ezer ikasten. Eskola erlijioso batera bidali zuten baina hamalau urterekin konturatu zen Euskal Herrian bizi zela eta identitate arazo hori somatu zuen beregan. "Ni zer naiz, euskalduna? Erdalduna"? Horrela galdetzen omen zion bere buruari. Erabaki zuen bera Euskal Herrian bizi zela eta euskalduna izan behar zuela. Bere kabuz ikasi zuen euskaraz ingurune erdaldun batean, familia erdaldun batean... Eta hamalau urterekin euskaraz ikasi zuen eta pixkanaka bere lekua aurkitzen joan zen.

Zuk kontatu dituzun gauza asko entzun dizkiot berari ere. Aiton-amonekin izan zituen harremanak, galtzaileen eta komunisten eta sozialisten bizipenak... Eta hori beretzat ardatza izan zen. Bere abuelok esaten omen zion: "Tu eres vasco y tienes que hablar vasco". Asko animatzen zuten bera euskaldun izan zedin.

Pena da bera hemen ez egotea zeren kontatu dituzun gauza asko berari ere gertatutakoak dira eta esango zuen: "Baina hau nire bizitza da ta!"

-Gaur gertatzen dena da gaur egun bi mundu baino gehiago daudela etorkinen uholde horrek baldintzatu-

ta. Nik uste dut oraingoa konplexuagoa dela. Nik ikusten dut zure familiaren historian klase ikuspegi bat egon dela, nolabait integratiorako balio izan duena. Zapaltzaileak, hangoak eta hemengoak... Duela gutxi sozialistek Albako Dukesari sari bat eman diote, ezta? Urteko enpresaria eta horrelakoak ere ematen dira, ezta?

Gu sindikatuan garatzen ari garen klabe bat da gizarte ereduarena. Badago klase ikuspegi bat, baita baldintzena ere, eta azkenean integrazio hori gizarte batean ematen da, baina nik uste dut herri xehearen artean eman behar dela hori. Goiko klaseek ez dituzte horrelako kezak.

Nik uste dut zuen historian ere hori agertzen dela. Oso historia interesgarria iruditu zait. Belodromokoa ere hunkigarria izan zen.

-Herenegun Lazkaoko Maizpide euskaltegian eman nuen hitzaldia, eta bukatu nuenean neska bat etorri zitzaidan, greziarra. Han euskara ikasten ari dena. *Hunkituta nago* esan zidan. "Duela bost hilabete etorri naiz Euskal Herrira"...

"Mexikon eta Chiapasen ezagutu nituen euskaldunak eta beren lurrarekin zuten harremanaren berri jakin nuen eta hona etortzeko gogoia jarri zitzaidan. Baina etorri naizenetik deprimituta nago. Ikusi dut hemen ez dagoela klase kontzientziarik ez ezer. Uste nuen euskaldunak beste era batekoak zirela. Harrituta nago nire lagunek zer nola hitz egiten duten emigranteei buruz Hernanin: `Etortzen dira moro hauek eta gu hemen borrokan konbenioagatik... Hamabi eta hamalau ordu lanean aritzen dira edozein baldintzaren truke!!'"

Dezepzionatuta dagoela esan zidan. Hori izango da asunto konplexua ezta? Nik ez dakit hori nola tratatzen

den baina... berak zeukan txasko hori... Horregatik esan zidan pozten zela nire hitzaldia entzutean ohar gaitzen emigranteentzat zein zaila den hona etortzea, arrazoiak, begirada hori... Iruditzen zaio euskaldunok ez daukagula begirada mota hori. Lehen jende askok pentsatzen zuen kanpokoak bertakoei lana kentzera etortzen zirela, eta oraindik ere jende askok hori pentsatzen du. Lan merkatua dinamitatzan dutela. Baina haien lekuan ere jarri behar da. Haiak ez daude aukeratzeko moduan. Horrelako arazoak asko izango dira hemendik aurrera.

-Arazoak behekoen artean, zeren azken finean globalizazioak eragiten ditu gatazka hauek, baina badirudi gatazka ez dela globalizazio hori agintzen duten horien arteko arazoa. Gurea baizik. Horrek nik uste dut klase azterketa bat eskatzen duela eta jarrera ideologiko militantea ere bai aurrera egiteko. Gero badaude beste osagarri batzuk kultura eta etxebizitzan antolamentuarekin, baina hori beste baterako utziko dugu.

-Lehen aipatu da 1950-1960 tarte horretan ez zegoela emigrazio estrategiarik. Gaur egun badago? Edo orduan bezala aspektu pertsonalean dago?

-Dударик gabe. Nik entzunda daukat emigranteen % 4ak bakarrik bidaltzen dituela seme-alabak D eredura.

-*Harian* atalean, *Berrian*, irakurri dut aste honetan euskaldun berri bat: Ondarrura aspaldian etorri diren langile atzerritarren umeak euskaraz eskolatu dituzte eta euskaraz bizi dira gaur egun.

Gero gurasoen hitzak datoz. Esate baterako ama batek hala dio: "Neskatoek euskaraz ikasi behar izatea aukerako izan da guretzat bertan bizi garelako". Beste baten amak honela dio: "Neronek ere egunen batean

ikasi egin beharko dut seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko”.

Eta aita batek hala dio: “Etorri ginenean bazenik ere ez genekien, baina orain lagunekin euskaraz egiten dut berba”.

Mutil gazte eta neska gazteen hitzak ere badatoz. Senegalgo hamasei urteko batek hala dio: “Lagunekin kalean bietara egiten dugu: euskaraz eta gaztelaniaz”.

Pakistango hamabost urteko batek hala dio: “Erosoago sentitzen naiz lagunekin euskaraz berbetan”.

Uruguayko hamabost urteko batek: “Ustekabea izan zen etorri eta euskararekin topo egitea”.

Kolonbiako hamairu urteko batek hala dio: “Euskara da gaur egun etxetik kanpo nire hizkuntza”.

Hau da, **integrazio bide batzuk ari dira aurrera ateratzen. Batzuk norbere kasa eta beste batzuk gurasoen ahaleginaren ondorioz.**

-Eta hori da Ondarrun. Ondarrun bai baina Barakaldon edo Bilbon? Zumaian ere errezagoa da, baina etorkizuna poblazio gune handietan ari gara biltzen eta nukleo urbano handiak erabat erdaldunak dira. Erabat. Eta hor ez bada determinazio pertsonalagatik ez dago beste biderik. Eta estrukturalki lortu beharko genuke masak euskalduntzea. Ez utzi dena determinazio pertsonalaren esku bakarrik ezta? Eta oso inportantea izango da hori etorkizunean. Eta herri bezala zer garen... Euskal Herria zer den... Nora datozen adierazi egin behar zaie... Eta ez gaude horretarako prestatuta. Dagoeneko trenak harrapatu egin gaitu.

-Soy colombiana. Mi experiencia es un poco lo que tú has comentado. Recoge mucho lo que es una experiencia emigrante. Y recogiendo un poco lo que dijo Germán, yo creo que para cada emigrante las vidas se dividen en dos mundos: en el que has dejado y en el que llegas. Aunque alrededor exista cualquier cantidad de culturas, porque te tocan indirectamente. Como está planteado en este momento en los temas de integración está más bien planteado al tema del folklore. Es eso lo que más se vende de nuestras culturas más que ahondar la parte política. Te quería preguntar, pero ya has dado la respuesta, es decir, que si la principal motivación debería surgir de cada individuo. Entonces igual los que podemos vivir en pueblos pequeños la presión del medio, de la cultura, del idioma nos anima a aprender el euskara. Digo esto porque he empezado a aprender el euskera. Cuando hablo algo la aceptación de la gente es grande. Llevo aquí seis años y ahora es cuando siento el rechazo. Lo veo ahora y no lo vi en el 2000. Y ahora, cuando digo algo en euskera, siento que la gente me ve con otros ojos. Creo que el idioma acerca mucho. Entonces, yo digo si la motivación debe surgir de cada individuo o de cada grupo familiar. Yo creo que debe ser muy complejo. Partiendo de eso veo casi imposible porque las políticas de integración que existen son muy light. Y no creo que en las grandes ciudades la gente vaya a sentir la necesidad de integrarse. Además cada persona que viene es un emigrante económico. Siempre está pensando que va a regresar a su país de origen, y eso hace que se desmotive de integrarse. De todas formas plantea que depende de cada conjunto familiar o de cada individuo el querer realmente integrarse.

-Yo también pienso que no le vamos a dar la vuelta a esta realidad uno a uno. Uno a uno siempre es positivo pero las palancas para darle la vuelta a la sociedad tienen que ser estructurales mediante leyes, mediante formas que crean un afecto colectivo respecto a una cosa. Si a una masa social se le inculca que el euskera es algo negativo, que representa algo negativo, como creo que ha pasado con las masas del partido socialista, y el partido comunista en su tiempo, es normal que la integración sea difícil. Como colectivo se han dejado fuera. Para lograr lo contrario debería ser igual, hay que inculcar lo que en realidad es un idioma: algo positivo. Es una identidad cultural. Hay que inculcar y debe ir apoyado por estrategias de ley. Que empuje un poco la sociedad a ello porque uno a uno no vamos a euskaldunizar Barakaldo.

-Nire ustez bada beste arazo bat eta da hizkuntzaren integrazioa euskara identifikatuz gero: euskalduntzea bera ere ez dugu lortu gure artean. Betidanik euskaldunak direnen artean ez dugu lortu. Orduan kanpotik etorritako jendea beste faktore bat da, eta orain beste kontinente batzuetatik dator jendea. Guk hala ere hasieratik daukagu arazoa, baina euskal gizartean bertan. Nahiko erdalduna bazen lehenagotik ere, alegia.

Bere garaian Txillardegik aipatzen zuen Israel eta horietan hebraiera ikasi behar zuela bertara bizitzera zihoanak. Interno moduan ipintzen dituzte gainera. Ez dakit nik hori oso positiboa den baina... Han gainera estatu bat daukate jatorri ezberdinetako jendea integratu behar izan dutena. Horrela dena batera doa. Baina hemen erdara da hizkuntza nagusia eta...

-Bai, euskara ez da behar.

-Horregatik diot gure jatorrizko arazoa konpondu ezean bestea ere...

-Nire ustez pasata edo kadukatuta dago afektibitatearen garaia, hau da, Kilometroak, Ibilaldia... Badakigu denok asko maite dugula euskara, baina aurrera beste pausu bat eman behar da. Maitatzen aurrera beste zerbait egin behar da. Hemen legistatzen hasi behar da jada. Hizkuntza minoritario batek diskriminazio positiboa behar duela tontoenak ere jakin behar luke. Eta nire ustez logika horretan pentsatuta gure arazo larriena soberania falta da. Ezin legistatu guk nahi bezala. Ezin organizatu guk nahi bezala. Ezin estrukturatu gure herria guk nahi bezala. Ezin kontuan hartu lurralde guztiak, denentzat estrategia bateratua egiteko, denak zati-tuta gaudelako. Soberania faltak irauten badu beti arte nire ustez euskara galdu egingo da. Nire ustez erabat lotuta dago.

Euskara, euskaldunak eta Euskal Herria *

Juan Carlos Etxegoien, Xamar

Aurkezpena
Fernando Iraeta

Juan Carlos Etxegoien Garraldako *Xamarrena* etxekoa da, eta hortik dator kio 'Xamar' izena. Xamar hizkuntzalaria da, irakasle ere bai, eta irakasleen irakasle aldi berean. Eta klaseetatik aparte berak duen ezagutza zabal-tzen ari da handik eta hemendik, eta zerbait baldin bada euskal kultura tradizionalaren dibulgatzailea dela esan-go nuke.

Xamar euskararen historiaz mintzatuko zaigu gaur. Berak hainbat liburu idatzi ditu, dibulgazio liburuak, euskarari eta euskaldunoi buruzkoak, eta nik hauek aipatuko nituzke:

-“Orhipean, gure herria ezagutzen”, euskaraz, gazte-laniaz, frantsesez eta ingelesez argitaratua izan dena.

-“Orekan”, herri eta hizkuntzen ekologiak.

-“Euskara Jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza”.

Interesgarriak izateaz aparte oso politikak dira irakurtze-ko. Garai bateko tebeoekin gogoratu naiz ni, baina ez dira umeentzako liburuak, baizik eta adituentzako. Berak dio euskara bada euskaldun egiten gaituena hizkuntza komunitatearen ikuspuntutik ezinbestekoa zai-gula euskaraz mintzo zaigun jendearen historia espli-katzea Euskal Herriaren historia azaltzerakoan. Eta

* Hitzaldi hau 2007ko ekainaren 7an eskaini zuen Juan Carlos Etxegoienek Bilboko ELAren egoitza nagusian.

Xamarren hitzak dira honako hauek ere: “Aurrera egiteko atzera begiratu behar da, gure herri iraupenaren gakoa bertan aurkituko dugulako”.

Gaur Xamarren eskutik ariketa hori egitea nahi genuke hainbat topiko gaindituz. Ba ote dago, posible ote da euskararik gabeko Euskal Herririk? Nahi duzunean Xamar, zurea da hitza.

XAMAR

Fernandok esan duen moduan, euskararik gabe Euskal Herririk posible al da? “¿De qué color es el caballo blanco de Santiago?” Ebidentea, ezta? Ez dakit nola komentatu behar den hori.

Euskararen historia ez dugu batere ezagutzen, alegia, ez dugu gure herria ezagutzen, eta menpekotasun egoera batean guk gure buruaz dugun irudia ez da gurea. Menperatzaileek zabaldutako eta eraikitako irudi bat da. Orduan, Fernandok aipatu duen azken liburuan, “Euskara Jendea” liburuan, ideia gure herriaren historia–dibulgazio mailan– hizkuntzaren ikuspegitik ematea zen. Zer da hizkuntzaren historia? Hori da beste gako bat.

Frantses eta espainol sistemak sinestarazi egiten digu hizkuntza gugandik at dagoen zerbait dela. Eta guk diskurtso hori onartua dugu. Gu beti gaude euskara salbatu beharrean. Gaurko hitzaldi hau ere euskaraz egin behar zen. Euskararen alde egin behar dugu. Euskarari egiten zaizkion oldarteak, euskarak dituen eskubideak... Badirudi gugandik aparte dagoen zerbait dela. Baina euskara salbaturik dago. Gaur egun munduan 6.000 hizkuntza inguru daude. Horietatik 5.800 hizkun-

tza galtzear daude, eta badago proiektu bat hizkuntzak salbatzeko, alegia, hiztegiak eta gramatikak bilduz. Horrekin kontsideratzen da hizkuntza bat salbatuta dagoela. Guk hori egina dugu. Hiztegiak sobran ditugu. Gramatikak berdin. Salbatuta ez dagoena hizkuntza komunitatea da, alegia, euskaldunak. Gure Miguel Sanzek halako batean, errebindikazio batzuen aurrean, hala esan zuen: “zer ergelkeria, hizkuntzak ez ditu eskubideak”.

Barkatu, baina ni ados nengoen. Hizkuntza darabilgunok ditugu eskubideak. Hizkuntza zer den galdetzen badiogu norbaiti, lehenengo erantzuna “komunikatzeko tresna bat da” izan behar luke. Ados? Hartu entziklopedia, hala jartzen du. Eta ez da egia, ez behintzat hori soilik. Hori baino lehenago badu hizkuntzak beste funtzio bat. Uharte galdu batean, bakarrik egonik, hizkuntza erabiltzen al duzu bai ala ez? Bai. Norekin ari zarete komunikatzen? Inorekin ez, zuekin baizik. Hizkuntzaren lehen funtzioa pentsamentuaren euskarria izatea da. Gure buruan erabiltzen dugu. Hori da lehen funtzioa. Eta hori ez dago gugandik at. Hori gu gara.

Posible ote da goi mailako pentsamentua arrazionala izatea hizkuntzarik gabe? Hori da galdera. Egunkarian aterako zarete galdera hori erantzuten baduzue. Hizkuntzak duen lehenengo funtzioa identitatearena da.

Horregatik, hizkuntzaren historia egin nahian, hiztunen historia dela esaten dut, jendearen historia. Hiztunen historia hizkuntzaren historia izanen da eta alderantziz.

Herri isolatua?

Dakizuen bezala Europan ere anomalia bat gara historikoki. Baina nola irauin dute euskaldunak? Hori da galdera. Nola da posible irautea indoeuropearra ez den hizkuntza bat mintzatuz? Nola esplikatzen da hau?

Gramatikalki euskara hizkuntza isolatua da, beraz, hortik xilatzen da herri isolatua izan dela hau; jende basa batzuk dira, inork menderatu ez dituztenak... Alegia, horri esker irauin dugu. Geografikoki badakizue mendi altuen artean gaudela... Erromatarrak Tafalla aldean ibili ziren, Tudelan, alkatxofak biltzen edo... Baina gainerakoan ez. Baina hori faltsua dela badakigu.

Historian barna bereziki nabarmendu den kasua erromatarrena da. Europa osoa konkistatu zuten, eta bertan zegoen jatorrizko kulturak desagertarazi edo eraldatu egin zituzten, baina euskaldunak ez. Zergatik? Euskaldunak basak direlako, mendi artean ezkutatuta, hizkuntza arraroa dute... eta erromatarrak ez zirelako hemen barna menturatu. Hor nonbait, lau mende luzetan euskaldunak mendira bildu ziren eta ez ziren kutsatu.

Erromatarrak zabaldu baino lehen hauek ziren hemen zeuden kulturak: iberiera, Etruriera eta euskaldunena. Erromatarrak zabaldu zirenean, iberiera eta etruriera desagertu egin ziren, eta euskaldunenak aurrera segi zuen.

Hau da (erromatar bide sarearen mapa erakutsiz) gure herri "isolamenduaren" irudia. Hori da erromatarrek antolatu zuten autopista sarea gure lurraldean, isola-

menduaren ideia baztertzena duena. Nonnahitik ibili ziren hemendik barna. Baina, irudia kontrakoa izan da beti; bakarrik Erribera inguruan ibili zirela, Araban ere bai, baina gainerakoan ez.

Azken hogeitau urte hauetan adituek argitara eman diguten sorpresarik handiena, aspaldidanik bilatzen zen arazo baten soluzioa. Erromatarrek idazle onak bazituzten, eta Michelin gida moduko bat egin zuten, non beti aipatzen baitzuten bazela bide bat Tarraco eta Oiasso hiriak biltzen zituen. Oiasso ezagutzen genuen gutxi gora behera non zegoen, baina ez osoki. Orain badakigu zein den. Oiasso Irun da. Lur azpian aurkitu dena hiri izugarria da. Teatroa zuena, zubia, portua, termak... Pompaelo edo agian handiago. Erromatarrek hiru hiri handi zituzten gure lurretan. Bat zen Oiasso, bestea Pompaelo (gaur egungo Pamplona), eta Arabako Veleia. Hiruak Irun deitzen ditugu guk. Oiasso Irun da, Pompaelo Iruña, eta Veleia ere Iruña. Kasualitatea? Ez, jakina. Gipuzkoa eta Bizkaiko kostaldean erromatarren presentzia uste genuena baino dexente handiagoa zen.

Hemen duzue, adibidez, Atharratze inguruan aurkitu zen aldare bat, erromatarren garaikoa, eta kultur trukatetaren adierazle ikusgarria. Hor jartzen du FANO HERAUSCORRITSEHE SACRUM G(aius) VAL(erius) VALERIANUS. Alegia, Valerius Valerianus batek, Herauscorritsehe izeneko jainkoari aldare txiki hori eskaini ziola esker onez. Latinez idatzita dago, Zuberoan, eta Jainkoaren izena 'Herauscorritsehe' da. Zuzen ez badakigu zer den ere, garbi dago euskaraz duela izena jainko horrek.

Lergan agertu zen beste harri zahar bat da honakoa: latinez ere idatzia da, eta momentu batean agertzen da

“umme sahar”. Holakoak hamaika daude Akitanian barna, Akitania Euskal Herria baitzen.

Sorpresa “desatseginak” ere baditugu. Erromak armada potente bat zuen. Soldaduak behar zituen inperioak mantentzeko. Armada hori mantentzeko tokian tokiko jendea biltzen zuen soldadu sartzeko. Hor duzuen beste ara hori Eskoziako mugetan aurkitutakoa da. Euskaldunak ez dakit baina eskoziarrekin arazoak izan zituzten erromatarrek. Eta armada bidali zuten. Armada horiek ibili ziren lekuetan erromatarrek seinaleak uzten zituzten. Armada izan zen Eskoziako muga horretan ara hau aurkitu da. Eta bertan aipatzen da han egon zen erromatar legioa barduloz osatuta zegoela, barduloak gipuzkoarrak zirelarik. Gisa berean agertzen zaigu ere Baskoien bigarren legioa. Beraz lehenengo legioa ere bazen. Alemanian eta Etiopiako Libian ere agertu dira horrelakoak. Euskaldunak erromatar armadan ere ibili ziren. Armadak badakizue zer diren: “apunta zaitez, mundua ezagutuko duzu... Gero lur bat emango dizugu”...

Eta gero ematen zitzaien lur bat gure toponimiarako ezinbesteko aztarna dena. Gure toponimian harrigarria da latinaren eragina. –AIN bukatzen diren hitzak, adibidez, Andoain, Andoanus hitzetik dator, Beasain, Indurain, Belaskoain...

Kostaldean, anekdota bitxia dago. Gure kostaldean bi arrain gazitegi aurkitu dira. Garai hartan gazitu egiten ziren arrainak kontserbatzeko. Gipuzkoan eta Lapurdin bi erromatar lantegi aurkitu dira. Bi herri horiek izen bera dute: Getaria. Baina arrain gazitegia nola erraten da latinez? Zetaria= ketaria= getaria.

Roma egon zen, baina hala ere euskaldun jarraitu dugu. Beste froga bat hizkuntza bera da. Mitxelenak eta hiz-

kuntzalari handiek garbi azaldu digute gure hiztegiaren %60-65 latinetik datorrela. Laburbilduz, isolamendua-ren historia mito bat da. Eta mitoak irauin du esplikazio erreza zelako euskaldunen iraupena azaltzeko. Tradizioekin berdin gertatzen da; uste arrunta da “betidanik” datozen ohiturak direla eta osoki herri baten propioak eta bereziak, baina ez da horrela. Hor dūzue, adibidez, Andaluzian egiten den Virgen del Rocioen erromeria. Zein da erromeria horretan dagoen musika tresna ugariena, erabiliena? Badira musiko batzuk hiru zulo dituen flauta moduko bat jotzen joaten direnak, eta beste eskua, libre duenez, makil batez daraman danborra jotzen dute. Eta biak batera jotzen ditu. Hori ezaguna da ezta? Txistuaren moduko instrumentuak daude bai Andaluzian eta baita European ere.

Alboka aldiz, gurea da ezta? Alboka Arabetik dator, albuq. Asiatik hasita Afrika bitartean ezaguna den artzain instrumentua. European pasabidean gaude, pasabiderik inportanteenetariko batean... Gaur egun Europeanako autopistarik inportanteenak non daude? Pirineotako pasabiderik garrantzitsuenak? Katalunian eta Euskal Herrian. Hori orain horrela bada pentsa nola izango zen historikoki.

Kultura aldakorra

Perspektiba gutxi dugu. Sentitzen dut komentatzea baina denok hil behar dugu. Hemen gauden guztiok. Bizi garen denborak ez digu perspektiba ematen kultura nola joaten den aldatzen konturatzeko. Oroitzen zarette Euskal Telebistako anuntzio harekin? Gazteak hartzen du txapela alderantziz jantzita eta zaharra lurrera, eskandalizaturik. Baina konortea galdu zuen zahar harek aita harritu zuen txapela erabiltzen hasi zenean.

Haren aitak ez baitzuen txapela erabiltzen. Aski duzue Bilboko euskal museoan dagoen argazkilariaren erakusketa ikustea XIX. mendean bizkaitarrak nola jazten ziren ikusteko: kapela handi batzuekin Durango aldean...

Bidenabar aipaturik zaharrek zuten orrazkera zen hemendik oso luzea eta hemen motz-motza. Ez dago ezer berririk eguzkipean. Hori dena asmatuta dago, baita modetan ere. Txapela erabiltzen hasi ziren karlistada garaian uniformearen parte zelako. Eta soldaduek badakizu zer egiten duten: ahal dutena etxera eraman. Orduan hasi zen zabaltzen gure herrian txapela. Guretzat tradizionala dena, betidanik egiten dena... Zer da betidanik, eta zer da betirako?

Duela gutxi irratian Ataungo jentilen etorrerako festari buruz ari ziren hizketan. Jentilak Aralartik etortzen dira Ataunera. Irratian antolatzaile batekin ari ziren hizketan eta antolatzaileak esaten zuen "hau betidanik egiten den festa bat da"... Eta nik ez nuen festa hori ezagutzen. Nola betidanik? "Bai, hamar urte daramagu festa hau egiten." Noski, antolatzaile horrek hamazazpi urte zituen. Berarentzat bai, betidanik.

Herri elebakarrak izanik ere, beti dago mugetan bizi den jendea beste herrialdeekin harremanak dituen. Beste kultura bat dutenekin, eta hor beti ematen da elebitasun mota bat. Gaur egun denok gara elebidunak legez. Zubero aldean, iletratuak, "kultur gabe" ziren jende batzuek, Bearne ondoan bizi direnez, harremanak zituzten haiekin, eta iletratu askok lau hizkuntza zekizkiten. Ze iletratu mota eh! Euskaraz, bearnesez, frantsesez eta españolez mintzatzen ahal ziren. Biarnoko ferian egon den batek, entzungo du kanturen bat, edo kontalariren bat eta etxera heltzean entzundako eta jasotako hori bere erara moldatuko du.

Gure kantutegi tradizionalan dauden kantu asko Europa osoan ezagutzen dira. Ustez originalak gara baina... Hizkuntzak ez badira muga kultur trukaketak egiteko, gutxiago euskalkiak. Hori ere begibistakoa da. Herri hau ez da sekula isolaturik egon. Herri honek ez du euskaldun iraun isolamentu horregatik. Beste arrazoi batzuk daude.

Isolamenduaren beste adibide bat Donejakuerako bidea da. European dauden kultur biderik inportanteenak Euskal Herritik barna pasatzen ziren. Etorkin klase guztiak erakartzen zituen. Etorkinak? Orduan ere baziren edo? Etorkinak beti izan ditu Euskal Herriak. XIII. mendean Donostiak alkateak Bearnesak zituen, gaskoinak. Donostiako toponimiaren zati oso handi bat gaskoinez dago: Morlans, Urgull, Polloe... etorkinek emandako izenak dira. Adibideak aspertu arte ditugu. Baina badugu historia bat oso bitxia dena eta kontatu egin nahi dizuet.

Nafarroan, administrazio euskalduna

Askotan lanean ari gara, lan munduan mugitzen gara... badakigu non gauden... ari gara administrazioa euskaraz, oposizioak ateratzen... Uste dugu gure herria base-ritar herria izan dela eta iraun badugu horregatik izan dela, eta ez da egia. Adibide bat eman behar dizuet zehatz: 1587. urtekoa da hor duzuen mapa. Garaiko erdararen izendatzen zituzten vascongado-romanzado moduan. 'Vascongado' iruditzen zaigu hiru herrialde direla, baina ez, 'vascongado' 'euskaldun' hitzaren sinonimoa zen tradizionalki.

XVI. mendean, Nafarroako gehiengo euskalduna izanik, administrazioak arazoak zituen moldatzeko. Bai

administrazio zibilak eta baita erlijiosoak ere. Jakin behar zen nora bidali behar zen apaiz euskalduna eta nora ez. Hori kontuan hartuz elizak egindakoa da mapa hau. Ikerketa bat egin zuen, eta bitxia da, izan ere 1512ko konkista ondoren egindako ikerketa baita. Goiko aldea, 'vascongado' alderdia da, alegia, elebakarrak zirela, euskaldun hutsak. 'Romanzado', berriz, erromantzez hitz egiten zutenak. Ikusten duzuen bezala bazen eremu bat elebidunena. Muga XVI. mendean gutxi gora behera hor dago: Zarrakaztelu, Pitillas, San Martin de Unx, Caseda, Artaxoa, Tafalla... 1587an. Ezagutzen duzue Nafarroa pixka bat? Tafalla badakizue non dagoen? Tafalla ze mendik babesten dute? Zer oztopo geografikok babestu du komunitate hori? Elizak horrela egiten zuen eta administrazio zibilak ere bai. Bereziki justizia sistemak, zeren jendeak pleitoak zituen ondokoarekin... Alegia, "behi bat lapurtu didazu"... "Baratze hori nirela zen"... Administrazio zibilak zer egiten zuen? Segun herria nolakoa zen jujeak eta abokatuak (prokuradoreak) bidaltzen zituen, baina jakin behar zuen nora bidali prokuradore euskalduna eta nora ez. Bestela ez baitzuten elkar ulertuko. Nahiz eta gero paper guztiak erdaraz egin.

Langileak zatituta zituzten: 'vascongados' eta 'romanizados'. Eta egindako lanaren arabera kobratzen zuten. Horrela egon ziren kasik hiru mendez 1765 arte. Urte horietan oraindik mapa oso antzekoa zen. Tafalla euskaldunen muga zen, Artaxoa ere bai... Hiru mendez ez zen ezer aldatu. Elizako prokuradore erdaldunak, ordea, 1765ean kexu dira. Eskatera egiten diote apezpikuari: "onartzen dugu gehiengoa euskalduna dela, baina azken urte hauetan erdara sartu da asko, eskolek egin dute lan... gehienek ulertzen dute jada erdara"... zer eskatzen zuten? Herri euskaldunetan lan egiteko auke-

ra. Zergatik? Lan gehiago izan zezaten, soldata handiagoa izateko. Gehiengoa euskalduna zen Nafarroan, eta hori euren kalterako zen. Handik bi urtera apezpikuak arrazoia eman zien. Eta ordurarte administrazioan euskarazko azterketak zeuden, baina hortik aurrera hori hautsi egin zen. Hori ikusita, administrazio zibileko prokuradoreek gauza bera eskatzen dute. Arrazoi bera erabiltzen dute. Eta hauek ere lortu egiten dute eskatutakoa, eta bereizketa hori hautsi egiten da.

Orduan hasten dira interpreteak aurkitu nahian. Administrazioak lege hori jarri zuenetik, hiru mendez elebakar mantendu ziren herriak hondoratu egiten dira. Mende batez, Tafallatik Iruñeraino euskarak atzera egiten du. Gogoetarako bide ematen du horrek. Orain esaten da administrazioa euskaraz utopia bat dela... Hori izan dugu herri honetan. Gehiengoa euskaldun hutsa baitzen. Administrazioa euskalduna bada populazioa elebakarra izan daiteke.

Gero zer gertatu den denok badakizue. Hau da konturatzeko gauzak ez direla esan zaizkigun bezala. Hau da ezagutzen dugun euskararen lehen mapa. Lehen mapa hau frantsesek egin zuten. Napoleonen garaian, hau dena konkistatu zuenean, bazuen kezka bat ere. Jendeak zer hizkuntza egiten du? Azterketa bat egin zuten euskara non hitz egiten zen eta non ez jakiteko. Muga Iruñea inguruan markatu zuten.

Honekin batera badago beste mito bat: eskolak. Eskoletan helburua katexima erakustea zen, baina hori erakusteko irakurtzen eta idazten jakin behar zen, eta hain juxtu horregatik sortu ziren eskolak. XVIII. mendean iparraldeko herri gehienetan zegoen eskola bat. Apaizen esku zeuden hasiera batean baina gero irakasleen esku, herriko jendearen esku, elebakarduna noski.

Horiek segurtatzen zuten, katexima erakutsi nahian, oinarrizko alfabetatze maila bat. Irakurtzen eta idazten euskaraz erakusten zuten. Horrek esplikatzen du Iparraldea, hain txikia izanik, gure herrian kultur mailan izan duen garrantzia. Klasiko guziak Lapurdi eta Baxe Nafarroan garatu ziren. Eta izugarrizko irakurzale-tasuna eta euskara jaso izan dute.

Eskola horietan erabiltzen zen liburu txiki horretan erdia katexima da baina beste erdia, harrigarria bada ere, kultura orokorra ageri da: zenbat planeta dauden, Rodasko Kolosoa zer den, zer dira Egiptoko piramideak, Euskal Herrian gaua denean non da eguna? Gisa horretako gauzak erakusten ziren. Harrigarria.

Euskararen herria

Laburbilduz, ezagutzen ez dugun historia bat dugu, eta herri honek ez du iraun kasualki isolatua bizi izan delako. Alderantziz. Herri honek kulturalki iraun du hasieran esaten genuenagatik, alegia, herri honek beti jakin du bere identitatea euskararen barna pasatzen dela. Komunikatzeko tresna soilik balitz berdin dio erdaraz eginda ere, baina lehen 'vasco' eta 'euskaldun' sinonimo ziren. Gaur egun ez. Hori bakarrik gertatzen da galbidean dauden herrietan. Eta garbi dago herri honek kurioski bere burua definitu du euskaradun jende bezala, eta euskararen herria bezala. Hori oso garbi izan du historia osoan zehar, eta horrek iraun arazi du. Herri honek beti jakin izan du moldatzen, eduki kultural berriak hartzen, tradizioa ahaztu gabe. Eta moldatzen bere izaerara, bere moldeetara, bere egiteko maneratarara. Pentsatzea gure kultura dela neolitikoa bezalakoa, ez dela aldatu, eta horri esker iraun duela... hori faltsua da.

GALDE-ERANTZUNAK

-Duela hilabete batzuk eztabaidan aritu ginen Irunëako Veleiari buruz. Zuk zer dakizu?

-Veleia aipagai izan zenean prentsan, gauza batzuk ez ziren zuzenak. Norbaitek esan zuen lehen aldia zela holako idatziak aurkitzen zirena... Begira, hemen ikusi dugun "ume zahar" eta hori... asko ezagutzen genituen. Akitania osoa, Garona bitartean, alegia, Bordele bitartean, josita dago euskarazko izkribuekin, harri zaharretan. Oso berriak direnak dira Veleiakoak, baina nik uste dut itxaron egin behar dela. Arkeologoen ez dute dudarik egia dela, garaian idatziak direla, baina filologoen sekulako zalantzak dituzte. Gauza bat da berrikuntza bat izatea, eta beste gauza bat da... Oso euskara modernoa da. Gainera, aurkitzen baditugu 'edan', 'jan' eta 'lo'... Badirudi txiste bat ezta? Harrituta gaude nola ez den aurkitu "Erromatarrak etxera" edo...

-Iparraldeko politiko bati *Berrian* irakurri nion Iparraldean euskara ondo zegoela, eta nik ez dut hori sinesten.

-Iparraldeko egoera kezagarria da. Nazio mailan arazoa ez gara konpontzen ari, beraz, behekoa mantentzea oso zaila da. Kontua da: edo mantentzen gara nazio mailan edo hau erori egingo da. Eta hori da Iparraldean pasa zena. Duela 25 urte, ikerketa soziolinguistikoak egiten hasi zirenean, eskualderik euskaldunena ez zen Gipuzkoa, Baxe-Nafarroa baizik. %90 inguru euskaldun osoa. Aski da belaunaldi bat dena erortzeko, noski frantses sistemak 200 urte daramatza lanean. Orain hauteskundeak dira Iparraldean, eta ikusi nuen frantses politiko bat esaten euskara babesteko ahalegina egingo

zuela. Kezkatuta geratu nintzen. Badakizue horrek zer esan nahi duen, ezta? Har dezagun euskara, egin diezaiogun monumentu bat, museo bat... sartuko dugu han euskaldun bat... liburu bat euskaraz... baina herri mailan oso kezkarria da. Oso barneratuta dute gutxiagotasun konplexua. Sistemaren ondorio bat da, alegia, zuk euskaldun izatearekin sufritu duzu bizi osoan zehar, beraz, seme-alaberi hori gertatzerik ez duzu nahi. Nahi gabe egiten dugu hori.

Iparraldeko adiskide batek, kulturen ezaguna denak, Mattin Irigoienek, kontatu zuena da. Duela bi urte langileen inguruko festa batera gonbidatu zuten Donapaleu inguruan. Denak euskaldunak ziren. Kontua ez zen denak erdaraz ari zirela, kontua zen bapatean batek esan zuela, "zergatik ez dugu kantatzen zerbait?". Eta beste batek, Mattini begira, "kanta dezala horrek, *le basque*" esan zuen, hau guztia erdaraz. Izugarria da. Han zeuden denak euskaldunak ziren. Horrek erakusten du frantses sistemak noraino eraman gaituen.

-Aipatu duzu Iparraldeko egoera, eta lehenago administrazioa euskalduna izan zela, gaur egun bistan da ezetz. Euskara ezinbestekoa da?

-Bistan da. Euskara behar dugu gu izateko. Gu garena izateko euskaldunak izan behar dugu. Dugun arazoetako bat da gizarte honetan hitzek galtzen dutela esanahia. Zuk Euskal Herria aipatzen duzu eta segun non eta norekin zauden ibili behar zara esplikatzen zer den, zazpi probintzia, hiru, beste aldekoak... 'Euskaldun' hitzarekin gauza bera gertatzen da. 'Euskaldun' 'euskaldun' da. Gauza bera gertatzen da 'vasco' hitzarekin. Zer da 'vasco' izatea? Nola esplikatzen da hori? Nik konprenitzen dut menpekotasun egoera baten aurrean jende askok galdu duela euskara. Baina egoera horrek etapa

bat izan behar du, gainditu beharreko etapa da. Finkatu egiten bada egoera hori eta ez bazaio aurre egiten, ba...

Euskara ezinbestekoa da. Ikusi besterik ez dago Osakidetzako azken oposizioak. Denek jakin behar zuten erderaz, baina zenbati eskatu zaie euskara? Laurden bati baino gutxiagori? Populazio euskalduna baino portzentaje baxuagoari? Hau duela 25 urte ulertzen dut, hizkuntza politika ez zelako, baina gaur egun ez dut ulertzen. Bistan da euskaraz jakin gabe lasai bizi zaitezkeela, baina euskara soilik jakinda ez.

Museoko objektu bihurtzeko joera hori? Nafarroan nabarmena da, baina gure administrazioak ere... ikusi besterik ez dago ETBk ere zer egiten duen, futbola eta pelota bai baina... folklorea ere merkeena. UPNk Nafarroan oso azti jokatu du. Ingelesa, alemana eta euskara eskatzen zaio zenbait funtzionariori. Funtzionario batzuk hala ere euskaraz hizketan joatea probokazio edo konfrontazio moduan hartzen dute.

'British' historia hori oso abila da. D ereduari zer nola aurre egin pentsatzen aritu dira, eta oztopoak jartzeaz aparte kontraerasoa da: nola aurre egin hizkuntza inmertsioa deritzon horri? Ingelesa eskainiko dugu. Baina langileak ez daude prest. Bateratze konbokatoria bat egin zen 27 ingleseko irakasleko plantila osatzeko eta 12 soilik aurkeztu ziren. Eta gurasoen aurrean zalantza sortzen du. Ez dakitena da D ereduan bada-goela jende prestatua eta molde bat eta esperientzia bat, eta ingelesekoan ez. Helburua da D ereduari kontra egitea. Izugarritzko nahasmena dago.

Identitatea aipatu duzunean, Nafarroan nabarmenagoa da. Adibidea erdaraz esplikatu behar da ulertzeko. Guri tokatzen zaigu gaur bezala hizkuntzaren lehen funtzioa

identitatea dela, baina guk hola izendatzen dugu gure burua, askotan ahaztu egiten duguna. Duela urte batzuk Korrikak azken etapa Iruñean zuen. Azken ekitaldia izan zen nafar gobernuaren aurrean. Eta azken hitzaldia eman zuenak esan zuen: “gubernukoek balekitez euskara ze altxor kultural handia den”... Bost axola. Arazoa ez da hori. Arazoa da haiek badakitela hizkuntzak identitateak direla. Haiek badakitez eta Nafarroan erderaz esplikatu behar da: “cualquier vasco-parlante navarro puede llegar a pensar que es vasco”, eta hori ez da onargarria Nafarroan. Zergatik inperioak atakutzen dituzte hizkuntzak? Desagertarazteko, baina ez kultura bat, herri identitatea baizik.

Gu beti ibiltzen gara esanez euskara ez dela politizatu behar. Politika ez den zerbait ezagutzen duzue zuek? Politika zer da? Gizartean eragina izatea, gizartearen harremanetan, gizarte antolakuntzan... Ezagutzen duzue giza harremanetan politika ez dena? Nik ez. Hizkuntzak ezin dira despolitizatu, baina ez dira “alderdizatu” behar, alegia ez direla partidu bakar baten ondarrea.

-Badirudi mestizaje kontzeptu berri bat dela baina zuk esana duzu Europako herririk zaharrena izanik euskaldunak garelako adituenak mestizaje kulturean. Zu ahalegindu zara desmitifikatzen euskaldunen isolamendua.

-Kontzeptu batzuk nola erabiltzen diren ikusita bitxia da. Kepa Junkerak ateratzen du diska berri bat eta esaten da mestizaje kulturala egin duela. Mestizaje kulturala? Eta gure trikitilariak zer egiten zuten bada? Alegia, trikitixa nundik heldu zen? Italiatik, nik dakidala. Ferrokarrila jartzera etorri ziren handik, eta hori ere onartu genuen, eta langileek ekarri zuten trikitixa.

Gipuzkoako trikitilari bati irakurri nion: “Zuen etxera nola heldu zen trikitixaren tradizioa?” “Aita albokaria zen”. Disgusto ederra eman nion.

Hartzen duzu Pazifiko erdian dagoen edozein kultura Pascua uhartea, Hawaii... 6.000 kilometro ur inguruan dutelarik eta hala ere egon da baten edo besteren kultur eragina. Hori hola bada Pazifiko erdian, ba pentsa hemen.

Mestizaje kulturala bizirik dagoen edozein kulturatan gertatzen da. Berria hartzen baldin badaki eurenera moldatuz eta bertakoa zainduz...

Pastoralak ikusi dituzue? Zuberoako teatro tradizionala, eta badaude martxa batzuk: bat da borroka, musika jakin batekin. Baina XIX. mendean Frantzian modan zegoen musika da. Ez gara martzianoak zentzu horretan. Bizirik dauden kultura guztiak ari dira hartzen eta uzten. Ez badugu osoki gure fondo zahar hau baztertzen gu izaten jarraitzen dugu.

-Igande honetan Berrian elkarrizketa egin zioten Valladoliden jaiotako ikertzaile bati, eta honek defendatzen zuen nolakoak ziren euskararen hasierak, eta nola zeuden barreiatuta gure lurretatik Europa osora. Zer iritzi daukazu horri buruz?

-Gu euskaldunak gara, eta konplexuz beterik gaude. Badago teoria bat: neolitikoan nekazaritza eta abeltzantza zabaldu zirenean European, zabaldu egin ziren hizkuntza indoeuropearrak. Gurea salbu beste denak alegia. Horiek zabaldu baino lehen zer zegoen European? Zerbaitek egon behar zuen, eta euskara ote zegoen esaten da. Euskara ere garatu egiten da. Dagoen teoria bixia da, alegia, azken glaziazioan (duela 30.000 urte), Europako populazioa Pirineoetan elkartu zela. Hemen

mikroklima bat bazegoela eta... Glaziazioa bukatu zenean jendea Europan barna zabaldu omen zen. Eta garai horretan gutxi gora behera oraingo euskararen oinarria gauzatuko zen, eta jende horrek zabaldu egin zuen proto-euskara hori erromatarrak, eta lehenago zeltak, etorri baino lehen.

Toponimiari egiten zitzaion kasu, baina toponimia peligratu bat da; orain giza historia ezagutu nahian, hasi dira ADN eta geneen irakurketaren bidez. Gaur egun badaude teknikak genetikoki jakiteko nor nondik heldu den. Mundu osoan ikerketa batzuk egiten ari dira, herrien historia zaharrena nolako den jakin nahian. Honen arabera, ikusirik gene jakin batzuen maiztasun handiena Pirineotan aurkitzen dela, eta hemendik urrundu ahala konzentrazio hori urrituz doa, hasi dira pentsatzen preedo proto-euskara bat zabaldu zegoela Europan. Eta hau bat heldu da Venemannek eta hizkuntzalariek esaten dutenarekin. Esplikazioa da hemendik zabaldu zela populazioa Europara glaziazio garaian.

Gaur egun Estatu Batuetan geneen bitartez nahi dutena da mundu osoko migrazioak aztertu. Genographic izeneko proiektu bat dago, interneten ikusgai dago, genomaren geografia aipatzen dutena. Bertan, garrantzitsu bezala ikusten dute euskaldunak zer garen argitzea, Europa zaharreko historia argituko duelakoan erantzunak.

-Badirudi gure buruari buruzko mitoak hautsi nahi dituzula. Nik aurkezpenean esan dut idazlea, hizkuntzalaria eta irakaslea zarela. Probokatzailera zarela ere gehitu beharko genuke?

-Herri batek beharra du bere burua zaintzeko, desakonplejatzeko. Uste badugu baserriar kuadrila bat garel

behiari begira egon garenak mendetan, eta horri esker iraun dugula ba... Hori faltsua da. Nik uste sekulako leizea dagoela. Herri honetan ikerketa oso handia da, oso ikerlari onak ditugu bai historia eta baita hizkuntzalaritzan, antropologia eta etnografian, baina hori guztia nork irakurtzen du? Non geratzen da hori? Hori adituen mailan geratzen da. Eta ni ez naiz aditua, ni aritua naiz.

Profesionalki irakaslea naiz, eta pertsonalki jakiteko beharra neukan. Nor gara gu? Ikusi dugu euskal administrazioak Tafallan mantendu zituela euskararen mugak. Nik uste dut jendeari hori erakutsi behar zaiola.

Badugu historia bat ezagutzen ez duguna. Nik esaten dut iraganean dugula aurrera egiteko gakoa. Nola iraun du herri honek pronostiko guztien kontra txoko honetan? Esaten duten moduan isolatuta zegoelako iraun badugu aspaldi desagertuta legoke herri hau.

-Esan duzu filologoek Veleiako kontuan iritzi bat dutela eta arkeologoek beste bat... hori nola da posible?

-Ez gaitezen engaina, kolektibo guztietan izaten dira desadostasunak. Egiten duzun galdera erantzuteko, unibertsitate barneko giroa ezagutu beharko genuke eta nik, bederen, ez dut ezagutzen.

Espero dezagun maila zientifikoari dagozkiela bakarrik eta, nork bere ikuspegitik gaia sakonki ikertu arau, ondorio berberetara iritsiko direla jakintzaren mesedetan.

Hiritartasuna, gizarte zibila eta mobilizazio kolektiboak Ipar Euskal Herrian *

Xabier Itçaina

Aurkezpena
Fernando Iraeta

Azken aldian, agian gutxiago ezagutzen genuelako, Ipar Euskal Herriko errealitateari garrantzia berezia eman diogu. Eta gure prestakuntza saioetan eta hitzaldi zikloetan, eta baita argitalpenetan ere, hau sakontzen ahalgintzen gara. Hainbat gai eta ponente izan ditugu gurean: politika, historia, ekonomia, desobedientzia zibila, hizkuntza, laborantza, hauteskunde sistema, espetxeetako egoera, etab.

Gaurko hitzaldi honi “Hiritartasuna, gizarte zibila eta mobilizazio kolektiboak Ipar Euskal Herrian” izenburua jarri diogu, eta gurekin Xabier Itçaina dugu gai hori lantzeko. Xabier Itsasun jaioa da. Itsasu herri inportantea da Ipar Euskal Herriko historian. Berak zientzia politikoak ikasketak burutu zituen. Eta gaur egun Bordeleko Zientzia Politikoetako Institutuan ari da lanean, eta bere espezialitateak erlijioa eta politika dira, baita gizarte ekonomia eta nortasun kolektiboa. Azken 30 urte hauetan Ipar Euskal Herriko gizarteak hainbat mobilizazio burutu ditu, eta besteak beste, baina aipagarriena beharbada, laborariek burutu dituzten mobilizazioak, ekonomia eta elkartasun arloan egin direnak, eta baita ere hizkuntza propio baten aldekoak. Errekonozimendu politiko edota instituzionalarekin batera horiek dira aipatze-

* Hitzaldi hau 2007ko abenduaren 14an eskaini zuen Xabier Itçainak Bilboko ELAren egoitza nagusian.

koak. Dakigunez Frantziar estatuak ez du onartzen Euskal Herririk badenik, baina funtsean errealtate bat da. Eta Xabierrek mobilizazio horiek aztertzen lagunduko digu, eta besteak beste honako galdera honi eragingo digu: Eragileentzat zein neurritan dira politikoak mobilizazio sozial hori?

Bigarrenik, tokian tokiko erakundeek nola erantzuten die presio horiei? Eta nola kokatu mobilizazio horiek lurralde horren barruan.

XABIER ITÇAINA

Gaurko hitzaldiaren testuingurua da Oñatin 2007ko martxoan, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako kongresu bat hain zuzen, eta han ezagutu genuen elkar Fernandok eta biok, eta gaia zen nortasuna eta demokrazia multinazionala. Han aurkeztu nuen lan txiki bat Iparraldeari buruz. Eta hemen antzeko zerbait egingo ote nuen galdegin zidan Fernandok, baina hitz ulerga-riagoekin.

Ni ez naiz sindikalismoaren historian berezitua. Ene gaiak erlijioa eta politika dira. Gero, gizarte ekonomia eta nortasun kolektiboa. Nik aztertu izan ditut Ipar Euskal Herriaren bilakaera historikoan agertu ziren mobilizazio kolektibo batzuk, eta beharbada horrek du gaurko antolatzaileen interesa sortu. Ene hipotesia orokorra da “mobilizazio ezkutuak” deitzen dudana. Euskal Herriari buruz egiten ditudan ikerketa horietan bada intuizio bat: gizartearen mobilizazio egituratuak eta sakonenak ez dira paisaia politiko eta mediatikoan agertzen direnak. Frantzian, Euskal Herria aipatzen delarik, beti alderdi politikoak agertzen dira. Baina Iparraldean horiek duten indar ahula nabarmentzen da, eta agertzen diren aldiro hauteskundeei buruzkoa da

soilik. Baina ene ustez ikuspegi hertsia horrek bide bazterean uzten ditu gizartearen beste mobilizazio ezkutu horiek, euren buruaz gutxiago mintzatzen dutenak, baina lurraldearen garapenean, eta lurraldearen garapenaren agendan biziki garrantzia handia izan dute. Eta mobilizazio ezkutu horiek sail orotan antzematen dira: arlo sozio-ekonomikoan, kulturean, hezkuntzan eta politikan.

Alabaina, azken urte hauetan, eta badakit horri buruz hitzaldiak izan direla hemen, mobilizazio ezkutu horiek geroz eta gehiago agertzen dira plazan, jende aurrean, eta Iparraldeko biztanlearen izaera berdefinitzen dute, hiritartasuna. Badira bi zentzu ezberdin. Batzuentzat errealitatea da komunitate baten partaide izatea, horrek dakartzan betebeharrak eta eskubideekin. Erran nahi baita hiritartasuna, definizio legal minimoa. Eta bestea da hiritartasuna utopia edo ikuspegi moduan, alegia, biztanle bakoitzak komunitate horri buruz duen uste edo ikuspegi edo asmo bakoitza. Eta hemen bereziki bigarren zentzu hori azaleratuko dut, nola historikoki Iparraldeko hiritartasunaren ikuspegiak anitzak diren. Eta horri esker pentsatzen dut Ipar eta Hegoaldearen arteko konparaketa hobetzen ahal dugula, zeren eta horren ere ikuspegi klasikoa da, bereziki abertzalegoa baztertzen dutenak, Iparralde eta Hegoaldearen garapen historikoa eta bidea ezberdina izan dela. Frantziaren eta Espainiaren bilakaerak ezberdinak izan direlako hain zuzen.

Ene ustez hori egia da, bistan da, baina hala ere ez du kontraste horrek erran nahi alderdi bakoitzean hiritartate izateko moldea uniformizatu egin dela. Hegoaldean gizarte politiko eta zibilaren aniztasuna errealitate bat da, baina Iparraldean ere bai.

Gaur, aniztasun hori azpimarratu nahi nuke bi urratsetan. Lehenik erakutsi hiritartasunaren figura historikoak anitzak izan direla, eta bost bereiziko ditut. Eta bigarrengoak hipotesi bat jarriko dut mahai gainean: ez ote da hiritartasun ekonomiko bat azkartzen ari Ipar Euskal Herrian? Bi adibide hartu: kooperatibena eta gizarte ekonomien mugimenduak. Eta laborarien sindikalismoarena.

Ipar Euskal Herria

Beraz, gaian sartu aitzin bi hitzez Ipar Euskal Herriaren zenbait datu emango ditut. Hiru probintzia historiko izan dira. Hala ere Frantziako Iraultza (1789) aurretik Frantzian baziren hainbat egitate politiko desberdin, bakoitza bere foru eta zuzenbide bereziarekin. Lapurdi luzaz Akitaniarekin inglesa izan da. Xiberua ere beste foru batekin. Baxe-Nafarroa Nafarroako partearekin... Baiona ez zen Lapurdi, baina bazuen bere forua, Italiako Erdi Aroko hirien ereduan... Eta baziren beste berezitasun juridiko batzuk. Aldude inguruan Kintoa. Edo Lekuinen, Orreagako fraileek bazuten ondasuna...

Anitz egitate juridiko ezberdin, eta probintzia horiek elkarrekin zuten lotura garrantzitsuena hizkuntza zen, euskara. Gero Frantziak departamentuak sortu zituelarik, badakizue euskal probintziak Biarnorekin lotu zutela Pirineo Atlantikoko departamentua sortzeko. Gisa batez lehen aldikotz bateratu zituzten probintzia horiek. Eta gainera iraultza garaian euskarak lehen aldiz ofizialtasun tarte bat ere izan zuen. Ez da biziki ezaguna, baina Manex Goienetxeren lanak hala ezagutarazten du. Elizari dagokionez ere elizbarruti ezberdinetan egon ziren luzaz probintzia horiek, eta XIX. mendearen lehen herenetik aurrera bateratuak dira. Frantzia guzian eliz-

barrutien mugak departamentuen mugak dira eta gaur egun "Diocèse de Bayonne, Lescar et Oloron" deitzen da, eta Biarno eta Euskal Herria bateratzen ditu. Gaur egun Ipar Euskal Herrian badira 158 herri eta biztanlegoaren dentsitatea begiratzen badugu bistan da biztanlego gehiena kostaldean dela. Badira 262.000 biztanle (1999ko datuak dira)*. Dinamismo demografiko bat bada. Biztanleria emendatu da 90tik 99ra %5,6; Frantzia, berriz, %3,5. Baina biztanlegoaren emendatze hori kanpotik etorritakoei zor zaie, zeren bertako biztanlea zahartzen ari baita.

Populazio handiena kostaldean kokatua da, eta ikusiz biztanlegoaren kokapena eta baita ekonomia ere, Iparraldeko Garapen Kontseiluak proposatu du irakurketa bat erranez: ez dugu lehen bezala probintziak pentsatu behar, baina behar ditugu zenbait zonalde batzuk definitu, eta proposatzen ditu hiru zonalde bereizteak: kostaldeko zonaldea (biztanlearen %66 dago bertan: Baiona, Angelu, Biarritz inguruan), gero barnekaldekoa, barnekaldean batera sartzen dira Baxe Nafarroa eta Zuberoa. Eta bitarteko zonalde bat: hau da Lapurdi barnekaldea, eta hor populazioa goiti ari da baina urbanizazio eri bati esker. Eta eskualde horretan da lurraren prezioaren eztabaida gogorra. Horietarik aintz kostaldean ari dira lanean, beraz, eguneroko migrazioan badira. Beraz hori behar da gogoan izan Ipar Euskal Herriaz mintzo garelarik. Zuberoan 14.000 biztanle daude, Bilboko auzoa bailitzan.

Sektoreetatik mintzo bagara, hor ere ekonomian zerbitzuak dira nagusi: turismoa, etab. (%72). Industrian eta etxegintzan %21, hor ere bada irudi bat ez dela industriarik iparraldean... gezurra da. Aeronautika, defentsan, mekanikan... Eta etxegintzan biziki sektore azka-

* **2009ko urtarrilaren 29ko Enbatak 2006ko erroldaren kopurua ematen du: 288.362 biztanle.**

rra da. Gero laborantzan %6'5. 6.000 behiko etxaldeak daude... Sektore dinamiko bat da, beraz. Hala ere 2.000 enplegu galdu dituzte 20 urtez. Kontratu prekarioak ere azken 10 urtetan asko hazi dira.

Azterketa soziolinguistikoa eginez gero ere hor beti behera doa, baina euskara ikasteko nahikeria gora doa, beraz, itxaropentsu izan beharko dugu.

Bost hiritar figura

Orain sartzan naiz lehen partean: hiritartasunaren bost figura historikoetan. Aniztasunaren erakusteko ene ideia da pixka bat historikoki bost figura bereizten direla:

1. Kontserbadore katolikoa

Hori aztertu nuen liburu batean. Ipar Euskal Herriko gizartearen parte handi batek luzaz bere burua euskaldun fededun moduan identifikatu du. Horri heldu zaio. Elizaren eragin politikoa anitza izan zen. Ene ustez hirugarren frantses errepublikan (1870tik II: Gerra Mundiala arte) elizak euskararen defentsa hartu zuen garbi. Lehendabizi estatu antiklerikalaren kontra azaltzen zen estatua zen. 1905ean bereizten dira Frantzian elizak eta estatua, eta hor politika antiklerikalaren azken urratsa eman zen.

Elizak euskararen defentsa eta tokiko nortasunaren defentsa hartu du estatuaren kontra, ez Frantzia nazioaren kontra ordea. Elizaren aurka zihoan estatu antiklerikal hori ihardokitzeko molde onena hauteskundeak egitea zen. Ohartzan gara orduko apaizen hitzaldi eta literatura aztertuz abstentzioa pekatutzat hartzen zutela. Jendea bozkarazten zuten, beraz, emeki-emeki errejime-

naren forma zilegizatzen, errepublika. Eta propaganda horrek bere ondorioak izan zituen, zeren ta begiratzen ahal dugu III. eta IV. Errepublikan, 1946tik 1958ra doana, Ipar Euskal Herrian Biarnoan baino gehiago bozkatzen da. Ez dakit noren alde baina... abstentzioa txikiagoa da. Besteak beste elizaren eraginez.

Bistan da, boto horri norabide bat ematen zien apaiz horiek, jauntxo kontserbadoreen alde, eta bistan da ez girela bozemaile libre, informatu eta arrazionalaren kasuan, baina bozkarazten zuela pertsona komunitate politiko batean sartuz. Gero, azken puntua, ondare kristau horrek ondorio politiko ezberdinak ukan zituen. Alde batetik eskuin klasikoa azkartu zuen, baina gerlatik landa beste eredu baten promozioa ere eginen zuela, hau da, kristau demokraziarena. 1950-1960 urteetan ezkerreko mugimendua bezala kontsideratu zen kristau demokrazia. Adibidez Algeriako denboran hauteskundeak egiten dira eskuin gogorra eta kristau demokraten artean. Horretarako garrantzitsua da, geroko abertzaileen bilakaera ulertzeko, hau ulertzea.

2. Figura errepublikarra.

Hau ere zaharra da, eta garrantzitsua Iparraldean. Frantses ideologia errepublikarrari lotua, hor ere bi barne tendentzia daude: bata biziki zentralista: pertsonak baizik ez ditu onartzen estatuak, beraz, ez da esku-biderik eman behar talde edo komunitateeri. Norberaren eskubide zibiko eta sozialak errespetatzen badira ez dago zertan arazorik izanik. Gaur egun frantses hiri bazterretan diren arazoetan ere aldarrikapen errepublikar gogorrena hori da: ez da talderik onartzen. Posizione hori antzematen da bai eskuinean eta baita ezkerrean ere.

Bada beste tendentzia bat errepublikarren artean baina nik deitzen du 'errejionalista'. Hemen badela hala ere tokiko nortasun kolektiboeri buruzko sentsibilitate bat. Hor bada tradizio bat euskararen alde. Errepublikar gorriak txurien kontra ziren III. Errepublikan. Badakizue Antoine d'Abbadiek Lore Jokoak antolatu zituela, eta hor ere gorriak euren aldetik antolatu zituzten Lore Jokoak. Euskararen promozioa eginez baina euren alde-
tik, eta bereziki apaizen kontrako ideologiarekin.

Eta bikoiztasun hori gaur egun oraino sendi da. Begira alderdi sozialistan badira eztabaidak.

3. Figura abertzalea.

Ziurrenik hemen ezagunena. Hau berantago agertu da. Abertzalegoa formalki hemen sortzen da XIX. mendea bururatzean eta XX. mendean, hegoaldetik etorritako ideia horiek, sartzen dira emeki, baina lehenik kultur munduan. Bada ideologiaren itzulpen kultural bat. Sabino Aranek adibidez Eskualtzaleen Biltzarra eta kultural moduan hartzen da, eta hor Iparraldeko apaiz batzuk ezagutzen ditu euskararen alde ari direnak, eta ideiak garatzen doaz. Gero 1930 urtetik aurrera Pierre Lafitteren inguruan aldatzen eta forma hartzen doaz ideiak. Kristau demokraziaren eraginarekin eta gerlatik harat abertzalegoaren formula berri bat agertzen da Enbatarekin. Eta bereziki 1970tik aurrera formula horren berezitasuna izanen da elizaren betiko haustea eta bereizketa argi bat egitea.

Eta gaur egun abertzalegoaren barneko ezaugarria aniztasuna da. Lurralde mailan beti gutxiengoa daukate, barnekaldeko kantonamendu batzuk salbu, baina honenbeste gai eta beste alderdien agenda politikoan inposatu dituzte. Eta uste dut Frantzia maila alderdi

komunistak ukan zuen funtzio hori luzaz, eta ez zen gobernuan sartzen salbu behin edo beste, baina gai batzuk beste alderdi politikoan agendan ezartzen zituen. Hizkuntza, lurralde garapena, lurralde antolaketa, lur eta etheen prezioa... hor denek esan behar dute zerbait.

4. Figura disidentea.

Jean François Soulet Toulouseko historialariari hartu diot erramolde hori. Souletek Pirinioetako historia landu du XIX. mendean. Eta figura disidentea litzateke politikan inplikatzan ez dena. Hauek ez dira sekula aipatzen. Ideia politikorik plazaratzen ez duena, jende aurrera azaltzen ez dena baina ez duena horregatik estatutaren presentzia eta eskubidea onartzen eta aplikatzen. Souletek erakusten du nola XIX. mendean zein zaila eta dorpea izan zen frantses estatuaren sartzea Pirinioetan. Ez bakarrik Euskal Herrian, eta zer nolako ihardokitze isilak eman ziren zuzenbide berri horren sartzearen kontra, adibidez, oihanetako legearen aurka, soldaduskaren aurka, muga finkatzearen aurka, etxe eta ondareen kudeatzeko kodigo zibilaren aurka. Ez ziren erresistentzia baina disidentziak. Ihardokitzen horiek isilka egiten ziren. Ez zen mobilizazio kolektiborik, bakarrik emigrazioa, intsumisioa, kontrabandoa... Zergen ez pagatzea, notarioekin adostea aurreko etxearen jabetza... Hiritartasun negatibo bat da, edo ez politizatu horrek ondorioak ditu gaur egun oraindik. Oraindik populazioaren gehiengoa horretan da.

5. Lurralde garatzailea.

Ene gustuko aintzineko lauen nahasketa da. Historikoki berriena da. Lotua da Ipar Euskal Herriko erakunde berrieri. Erakunde horiek 1984-1985an agertzen dira: Garapen Kontseilua (gizarte zibilaren ordezkari dira

gehienbat) eta Hautetsien Kontseilua. 1989an Kultur Erakundea, eta azkena da Euskararen Erakunde Publikoa.

Erakunde horiek gizarte zibil, politiko, administratibo... faktore ezberdinak mahai inguruan jartzen dituzte, eta nire lankide batek aipatzen du lurraldearen gramatika berri bat jartzen dute zutik. Oso eredu ezberdinetatik heldu diren aktoreak elkarri lotuz eta elkar lanean. Beraz, eraikitzen ari den paisaia instituzional berri horretan bistan da batzuentzat ez dela aski. Batzuentzat horren emaita zen departamentuaren ez emaiteko joko. Besteentzat, aldiz, aski da, bereziki frantses hiritartasunaren kontra doalako, bereziki hizkuntza politika bat errekonozitzen delako. Beraz, bertze batzuentzat erakunde horiek lurraldearen garapen sozio-ekonomikoari lehentasutasuna emanaz, eztabaida maila tekniko batean kokatzen dute, despolitizatzen ari direlarik. Eta hor posizio moral eta etiko ezberdinen juntatzeko modu bat da eztabaida maila tekniko bat ezartzea.

Nik erran nezake honek azterketa bat ekarri duela barnekaldeko eta kostaldeko herrien arteko harremanetaz.

Gizarte-ekonomia eta laborariak

Nire bigarren partera pasatzeko, behatzen dut kultura eta politika mailan biziki aztertua izan da, baina ez ote da hiritartasun ekonomiko bat antzematen? Hiritartasunaren aniztasun hori nola sentitzen da maila ekonomikoan? Bi adibide hartuko ditut: gizarte ekonomia eta kooperatiben mundua, eta bestea laborarien sindikalismoa.

A. Kooperatiben mundua.

Hemen berezitasuna da bereziki Arrasateko esperientziaren eraginez, SCOOP langile kooperatibak dira. Han ere hedatzen dira 1875tik aintzina. Bistan da ez dutela antzik ere Arrasateko arrakastarekin, baina leku berezi bat badute Akitania mailan. Departamentu horretan dira langile gehienak besteekin alderatuz.

Kooperatiben sortze hori lau-bost iturrietatik dario:

1-Abertzalegoa. Mugimendu abertzaleak, eta bereziki *Enbata* irakurtzen badugu, 1960-70urteetan kooperatibak ipiniko ditu dotrina ekonomikoaren bihotzean. Hori da asmoa. autokudeaketaren diskurtsoa nagusi zen, Europan nagusi zena.

2-Erlijioa: katolizismo soziala. Hemen ere apaiz batzuk inplikitzen dira mugimendu honetan, eta ideia hau zabaltzeko, eta Hazparneko kolegio katolikoan Piarres Xarrittonek emeki-emeki irakaskuntza teknikoa sartzten du. Formakuntza teknikoa sartzten du hegoaldeko eredia jarraiki. Parisetik ekarri zuten irakasle bat eta hark abiarazi zuen proiektua.

Bada ere katolizismoaren eragin horretan ideia bat kooperatiba hirugarren bide bat dela, ez liberala eta ez sozialista, eta katolizismo sozialarekin ondo doana ere.

3-Gizarte ekonomiaren pentsamoldea. Mundu mailan den kooperatiben teoria da, ez da berezitasunik.

4-Nik egin nuen ikerketa bat SCOOP horien sortzaileekin. Errepresentazio moduan bazuten baserri mailako partzuergoa, eta elkar lanean aritzeko modua hor dago. Ezin partekatuak diren

etxaldearen parteak... ideia bera atzematen da kooperatibetan.

5. Lau iturri hauez gain krisialdi ekonomikoa zegoen. Frantzia mailan 1975-1985 artean langile kooperatibak goiti ari dira, baina gero geratu egin ziren. Krisian dagoen enpresaren irtenbide alternatibo bat bilatzen ari dira. Frantzia mailan estatuak kooperatibak lagundu zituen eta langabezia gainditzeko tresna bezala erabili zituen. Lan mundutik aparte zeuden lurralde batzuk bertara mugitzeko amu gisa erabili ziren kooperatibak. Eta gero emeki-emeki aldatu zen politika. Gero lan merkaturatu ohartu ziren lan merkaturako baliagarriak zirela, eta alderdi sozial hori gehiago pasatu zen elkarteetara. Estatuak gero elkarteak zituen lagundu. 1981ean sozialistak heldu dira boterera, eta Michel Rocardekin adibidez, frantses gobernuan delegazio bat sortzen da gizarte ekonomiaz ari dena.

Kooperatiba horiek uste dut lurraldearekin, Iparraldeko lurraldearekin, ukan duten harremana aberatsa eta konplikatua izan dela, eta gisa batez politikoa. Zergatik? Lehenik gizarte ekonomiaren partaide bezela barne printzipioak erabat politikoak dituztela. Kooperatiba demokrazia enpresa da printzipioz. Enpresa txikiak ziren Iparraldean, eta baziren eztabaidak horren inguruan.

Eztabaidak publikoak dira lurrarekin harreman estua dutelako. Lana zen 1982an kooperatibek elkarrekin sortu duten elkarte bat, eta horien ideia zen enpresa ezberdinak integratu behar zirela mugimendu batean, eta elkarri lotuz azkarrago handituko zutela, baina ez zen nahi bezelako fruiturik atera, baina erran nahi dut,

Lanaren estatutuak irakurtzen direlarik, kooperatiben esperientziak euren burua mugimendu bezala pentsatzen zutela. Eta hori interesgarria da.

Hirugarren arrazoa: militantzia ekonomikoaren lekuko ziren kooperatiba horiek. Erran nahi baita, orduko aintzindarietara elkarriketak egiten zaizkienean argi ikusten da euren ideia zela lurraren garapena ez zela kultura eta hizkuntza mailan soilik iraganen, baita ekonomia mailan ere. Bazen bizitoki eta kultura sobera abertzalearen aurkako kritika bat, nahiz eta benetan abertzaleak ziren ia gehienak. Eztabaida ez zela alegia instituzio eta kulturaren, baita ekonomian ere. Lana herrian egitea hobesten zen. "Herrian bizi nahi dugu eta..." garai hori da.

Gero, bistan da, printzipioak badira eta gero bada errealitatea. Enpresa bakoitzak bere historia ukan zuen. Merkatuen errealitatea hor da... Kultura kooperatiboak ere ez zen hegoaldearen parekoa... eta frangotan enpresaren liderrak zuen ideologia kooperatibo azkarrena. Batzutan langileen baino gehiago. Gero izan dira porrot batzuk ere, eta horrek geldi arazi zuen mugimendua, baina horrek ez dio kentzen kooperatiben esperientziari bere berezitasuna eta lurraldean ukan duen eragina. Eta gaur egun badira inizatiba batzuk Ipar Euskal Herriari berezitasun batzuk ematen dizkiotena Akitania eta Frantzia mailan. Adibidez, mikrokreditua Zuberoan. Badira esperientzia oso interesgarriak. Bordeleko ekonomilari batzuek hori erakutsi dute ikerketa batean. Mikrokreditua aztertu dute Akitania guzian eta arrazoiak ez dira ekonomikoak, badira bestelako dinamika berezi batzuk.

B. Bigarren adibidea: laborantza eta nekazarien mobilizazioa.

Nik bakarrik azpimarra nezake laborantzaren sektore hori biziki politizatua dela Iparraldean. Lehenik biziki sektore egituratua eta instituzionaldua delako. Badira mila instituzio laborantzaren inguruan. Biziki sare instituzional konplikatua da, eta instituzioek interesak dituzte, beraz negoziaketak...

Biziki sektore zatikatua da sindikal mailan. Eta baita ere sektore sinbolikoa delako Euskal Herriren irudimenean. Laborariak populazioaren %6 baino ez dira. Baina pisu sinbolikoa oso garrantzitsua da. Ikerle batentzat interesantea da laborarien arteko eztabaidak batzutan zinez sektorialak diren. Nola politizatuak diren, alegia, eztabaida teknikoak ere esparru publikoan eztabaida politikoak bihurtzen diren. Manifestaldiak etab. Politizazio hori ez da gaurkoa. Laborarien kopuru handiena barnekaldean dago: Atharratzeko kantonamendua, Iholdi, Baigorri... Gero Garazi, Donapaule, Maule, Bastida... Hazparne gutxiago... Ezpeleta...

Hor dira gehienak. Politizazio hori aspaldikoa da. Frantzia mailako datu batzuk derrigor izan behar dira gogoan hor ere. 1970-1980 tartean, laborarien sindikalismoak eredu klasikoa segitzen du. Euskal Herrian bereziki gazteak sartzen ziren lehenik ekintza katolikoan, eta hortik joaten ziren laborari gazteen sindikatura, eta gero handitzearekin FNSEA sindikatura, eta horrek monopolioa zuen. 1981ean sozialistak etorri arte bederen berak agintzen zuen laborantzaren politika definitzeko garaian ministeritzarekin, kudeaketa korporatista bat zen.

Monopolioa hausten da 1970. urtean. Ekintza katolikoa-ren barne eztabaida baten ondorioz lehenik. Hor labora-

ri gazte batzuek errefusatzen dute bai elizaren hierarkia, bai egoera politikoa (argi eta garbi abertzale ikuspegitik gertu dira), bai profesional mailan. Frantzian den mugimendu bati lotzen dira, laborari langileen mugimenduari. Mugimendu horrek dio laborariak industria bezalako langileak dira. Orduan badituzte euren aldarrikapen eta berezitasunak.

ELB sindikatu horrek ez du onartzen laborantza departamentu mailan kudeatua izan dadin. Eta laborantza erabat galdegiten du Euskal Herriarentzat, eta eztabaida hori erabat politizatua da. Batera mugimendua, euskararen ofizialtasuna... dena hor sartzen da, horren alde ariko dira. 2005ean sortzen dute Euskal Herriko Laborantza Ganbara elkarte gisa, ez baitu entitate juridikorik ukaiten ahal, eta frantsesa ere ez... ez dute "Chambre d'Agriculture" terminoa erabiltzeko eskubiderik. Abokatu bat bazuten beharbada...

Laborantzaren politizazio horren azterketa egiten ahal da, baina soilik nahi nuke erakutsi hiritartasunaren aniztasuna. Bataren eta bestearen argumentuak zein diren ikusi. Beti baten argumentuak entzuten dira baina... Hor adibide bezala hartzen dut irratian izan zen Laborantza Ganbararen aldeko eta aurkako baten arteko eztabaida bat Laborantza Ganbarako departamentu mailako hauteskunde kanpaina garaian.

Interesantea dena da politizazioa eta despolitizazioa nola balore bihurtzen diren laborantzaren geroaren inguruko eztabaida horietan. Baten argumentua da, demagun, "sindikatu batek behar du laborarien interesa lehenik defenditu, sektorearen interesa. Gainontzeko eztabaidak, eskualde mailakoak, ez dira sindikatuaren lana". Beste sindikatuak dio: "ez, gure ideia da nehor ez bada gehiago bizi lurralde horretan, laboraria ere joanen

da. Laborantzaren geroa aztertu behar da lurraldearen garapen orokorra pentsatuz: bai kultura, bai politika, ekonomia... Denak elkarri lotuak dira”.

Beste argumentu bat. Batek erranen du “lurraldearen erakundeeri buruzko eztabaida, alegia departamentu bat edo ez departamentu bat, ez da gure esku. Hori politikoen esku da”. Besteen argumentua izanen da: “Ez, denak lotuak dira. Frantzia legea da laborantza ganbara bat departamentu bat da. Beraz, laborantza ganbara nahi baduzu esparru instituzionala ere behar da aldatu”. Argumentua izanen da: “legea lege, egiturak horrela dira”. Besteak erranen du: “Legea ez bada zuzena desobedientzia zilegi da”. Teologoen aspaldiko eztabaida da hori: noiz da desobedientzia zilegi?

Eta beste argumentua da: “Erran nezake lehengo argumentu korporatista: zuek zatikatzen dituzue, zatiketa sartzen duzue laborarien artean”. Eta besteak esango dio: “Ez, baina eztabaida gauza sanoa da”.

Bururatzeko, bi adibide horiek hartu ditut, laborariena eta kooperatibena, erakusteko nola esparru publikoan hiritartasunari buruzko eztabaida orokorrak nola nabari diren eztabaida sektorialetan ere. Eta horiek behar direla aztertu. Ez dela alderdi politikoen emaitzetan behatu behar konprenitzeko zinez eztabaidak nola kokatzen diren Iparraldean, eta nola hiritartasunaren aniztasuna behar den gogoan izan zerbaiten ulertzeko. Mila esker.

-Euskal Herriko Laborantza Ganbaren inguruko eztabaidan bi alderdi daude. Nik batean FDSEAkoak eta bestean ELBkoak jarriko nituzke, baina hau ez da orokorragoa laborarien munduan? Eztabaida ez da gertatzen langile sindikatuen artean? Langileak ez dira zati-tu behar esaten badugu, ez gaitezen hasi departamentua edo eztabaida horretan... sindikatu frantsesak ere jarduten dute horrela, ezta?

-Diferentzia da ene gustuko langile sindikatuen artean ez da laborantzan bezain sinplea. Jadanik estatu mailako sindikatuen artean ikaragarritzko interpretazio desberdinak dira. Orain gehitzen ari dira euskal sindikatuak, baina sartzen dira jadanik egituratua den eztabaida batean. Jadanik badira tradizio ezberdinak, badira komunistatik heldu direnak, badira erlijio girotik helduak. Aldiz laborantzan “gauza aski sinplea da bi sindikatu daudelako”, baina eman dezagun Landesetan egingo bagenu azterketa hori hau ez litzateke baliokidea. Landesetan bada beste sindikatu bat, laborariena, tradizio sozialista batetik heldu dena. Zinez Landesetako berezitasuna da. Hemen ez dugu tradizio hori laborantzan. Kasu berezi bat da.

-Nik segitu dut eztabaida bat *Aldan* eraman dutena, sindikalista eta abertzale, eta hainbat abertzale sindikatu frantsesetan ari direnak lanean, euren tesia zen abertzaleak zirela pertsonalki, baina erakundeak edo beren sindikatuak ez zuela horretan inplikatu behar.

-Horrek ez nau harritzen. Galdera da hori? Ez dut nik hori aztertu. Baina galdera da sindikalista abertzale iza-teak zer ikuspegi ezberdin ekartzen du jadanik hor diren

sindikatuerei buruz, alegia, ikuspegi ezberdin bat ekartzen ahal du lurraldetasunari buruz edo hegoaldekoekin duten harremanei buruz, baina lan baldintzei buruz zer da ikuspegi ezberdina?

-Laborantzan, hor gauzatu da proiektu alternatibo bat, eta ez bakarrik proiektu alternatibo bat teorikoki, praktikan ere momentu honetan nagusia da. Eztabaida plano praktikoa ere planteatzen da. Langile mugimenduan, eztabaida hori izan daiteke eztabaida teorikoa. Zergatik ez? Zergatik bai? Nola? Hola, bestela? Baina ez da proiektu bat gauzatu dena indar minimo batekin maila bardinean planteatzeko eztabaida, ezta?

Eta nik uste dut kontuan hartu behar dela eztabaida honetan estatu frantsesa sartuta dagoela, eta parte bat dagoela hori mugatzen saiatzen dena lege eta neurri administratiboen bidez. Kasu honetan estatua ez da neutrala. Hor sekulako arazoak daude, juridikoak, penalak... Hori da azkenean errealitate bat bere indarra duena, planteamentu alternatibo bat daukana, ez bakarrik sektoriala, baita ere politikoa, eta diferentzi hori oso handia da konparatzeko langile munduan eta... ez dakit.

-Egia da zuk erraten duzuna. Euskal Laborantza Ganbararen ideia zen hastapenetik zerbitzu instituzio bat egitea laborarientzat, eta ez bakarrik gauza ideologiko bat. Eta eman dezagun zerbitzu juridiko bat zutik jarri dute, eta hori argi dago.

Estatua ez da neutrala, hori seguru, baina estatuak batzutan hartzen ditu delibero batzuk eta gero ondorioak ez ditu beti kontrolatzen. Adibidez lehen aipatu dudana. Iparraldeko talde berri horiek: Garapen Kontseilua, Hautetsien Kontseilua... Batzuk erranen dute hori hutsa

dela, diskurtsoak soilik direla, baina... Ene ustez, hala ere, eztabaida esparru ezberdin batzuk sortu ditu. Hori abiarazi zuen estatuak, prefetak.

Bistan da jendeak esaten duela estatuak hori abiarazi zuela departamentuen kontrolatzeko, baina hala ere abiarazi zuen eta behar zirela gizarte zerbitzuko ordezkariak bildu eta denak elkarrekin mintzatu, eta azkenean Frantzian ere Euskal Herriko eredia hartu zuten entitate administratibo berri batzuen sortzeko, "les pays" deitzen direnak. Lege batzuk izan dira, eta orain Frantzian entitate administratibo tiki batzuk ari dira antolatzen, "pays" izenekoak, ez dutenak aurrekonturik baina garapen kontseilu bat badutena, eta gogoeta bat abiarazten dutena herria eta departamentuaren artean.

Ez dakit prefetak hori abiarazi zuenean pentsatzen ote zuen hain urrun joanen zela. Gerora izan dira eztabaidak: parte batek dimititzen zuen, erakunde horrek ez du botererik...

-Estatua ez da neutroa, eta hori garbi dago, eta behar bada argiago egongo da Espainiako gobernuaren eredu ez dela neutrala, baina kontraesan batzuk ere badaude. Ari dira sortzen antolamendu berri batzuk, zuk aipatu dituzu Garapen Kontseilua, hizkuntzaren bulego publikoa... Kontradikzioa ez dago? Euskara ez da ofiziala baina bulego ofizial bat antolatzen dute?

-Ene ustez ez zuten pentsatzen hainbertze gauza sortuko zela eta dinamika hori izanen zuela. Gero ez da deus irabazi ezta ere. Hor euskal kultura erakundearen adibidez bada eztabaida bat orain, diru parte handi bat moztu dutelako heldu den urterako eta...

Ez dakit sobera nola erantzun, baina gero estatua ez da bat, eh! Erran nahi dut estatua aparato bat da eta prefeta beste gauza bat da, ministeritzak beste zerbait dira...

-Zuk uste duzu Sarkozyk zerbait egingo duela bere ikuspegi neoliberal eta modernizatzailetik? Edo ez da sartuko holako aldaketatan?

-Euskal Herrian?

-Ez, ez, Frantzian. Euskal Herrian ez daukat esperantzarik. Galdera da: ausartuko al da Sarkozy aldaketa batzuk egiten estatu mailan eredu tradizional ereduan edo ez da joango hortik? Zerbait esan du dezentralizazioa dela eta...

-Ez dut aztertu, beraz, nik dudan inpresiotik mintzatuko naiz. Bordelen ari naiz lanean, han ere entzuten ditugu unibertsitatean gauzak... Unibertsitatearen geroari buruz bada arrangura anitz. Sarkozyk nik uste dut lehenagotik eginak diren plan batzuei segituko diela, baina bortitzago. Aldaketak eginez bortitzago. Ikerketa zientifiko mailan argi da aurrekontuak ttipitzen ari direla, behar dugula Estatu Batuetako eredu bateri lotu, Frantziaren berezitasuna zela ikerketa zentru bat eta hori emeki-emeki behar dela unibertsitateari lotu eta...

Eta sailka hori ageri da. Nik uste dut politika publiko estilo bat baduela besteak baino bortitzago. Gero aldaketa ez da zernahi gisa gertatuko baina... Badakizue administrazio publikoan ari zirenen estatus berezia erretretentzat kanbiatu dutela. Hori ere aspalditik agenda politikoan zen. Ez du harek pentsatu, baina beharbada bortitzago egiten du. Horrela badira mugimendu sozialak... herri osoa geldirik, trenak blokeatzen... Berdin unibertsitatearen erreformarentzat. Baina gero dezentralizazioak jadanik ez du eztabaida publiko anitzik sort-

zen Espainarekin konparatuz gero. Eta konplikatua da, zeren eta ezkerretik ere bada tradizio bat deszentralizazioaren aurkakoa ere. Argumentua izanez “botere desberdinak ematen baditugu euskaldeei egoera sozialak ez dira berak izanen, eta desberdintasun berriak sortuko dira eskualdeen artean”.

Nik kurtsoak ematen ditut langile sozial batzuei Bordelen eta mentalitate hori zinez barnean dute, eta dezentralizazioa aztertzen dutelarik dira dezentralizazioaren lanjerrak. Lurraldean arteko harremana hautsiko duen beldur. Hor ere biziki orokorki mintzo niz, baina dezentralizazioaren auzia aztertzeko garaian eskuin-ezker argumentuak ez du balio. Eskuin barrenean eta baita ezker barrenean badira dezentralizazioaren aldekoak eta aurkakoak. Hemen ere bai.

-Hiritartasunaren bost figura planteatu dituzu. Egin duzun sailkapenean ez dator bat normalean ideia politikoekin egiten den sailkapenarekin, ez da ideia politikoaren arabera sailkapena ezta? Zergatik egin duzu sailkapen hori? Horrek ondo esplikatzen du Iparraldean egon diren praktika mobilizatzaileak? Edo ez du hobeto esplikatzen?

-Sailkapen hori egiten du, ene ustez, eta ni ikerketa mundutik ari naiz... Pentsatzen dut errealitate historikoa bereziki XIX. mendetik aintzina, III. Errepublikatik aurrera, hobeto esplikatzen dutela eredu horiek zinez eta bakarrik jartzea plantementu politikoak ezker-eskuin, abertzale-ez abertzale... hori gurutzatzea. Nire ustez hori ez da aski, konplikatua da. Demagun deitzen dut figura disidente hori, hortaz ez da izan ikerketarik, baina ikaragarri garrantzitsua da fisik erraten ez dutenak baina beste jarrera bat badutena estatuaren deretxoa aplikatu gabe, adibidez. Muga pasatuz, arma-

dara ez joanez... Horiek zergatik aipatzen ditudan? Ene ustez gehiengo kasu hortan zen. Gehiengo isila, politizatua ez zena baina garrantzia ukan dute mentalitate baten egituratzean. Intsumisioaren tasak Errepublikara garaian ikustekoak ziren, eta aldaketa horiek ez ziren alderdi politikoak edo elizak kontrolatuak. Eguneroko jendearen bizia kanpotik heldu zen deretxo berriak sobera aldatzen zuen. Etxea edo baserria ez zuten ahal eman seme-alaberi... edo eman dezagun lur amankomunak Baxe Nafarroan bailaraka antolatuak ziren, eta iraultzak kendu egin zituen. "Ez, ez", erran zuten, "hemendik aurrera herriarenak dira". 1838an berriz ezarri zituen bailarak, ez zuelako aurrekoak funtzionatzen. Hori dut interesgarri ikusten. Nola lehengo erakundeak, nola jendeak, estatuak jarritako edo jarri gabeko eskubiak nola ez dituzten onartu eta zer erantzun instituzional eman zaion horri. Landesetan, adibidez, aztertua izan da. Pirinioetako beste lurralde batzuetan ere bai, estatua nola sartu den konkretuki egunerokotasunean. Iparraldean ez da aski aztertua izan, ene ustez sobera fokalizatu garelako mugimendu politikoetan. Adibidez, abertzaleari buruz, Iparraldean izan dira anitz lan. Baina errepublikanismoari buruz zinez gutxi.

-Pentsatzen duzu aurrera begira ere hiritartasun figura edo eredu horiek euskarri izan daitezkeela nortasun kolektibo eta praktika mobilizatzaile berriak sortzeko?

-Galdera politikoa da hori. Nik erraiten ahal dudan bakarra da... Erran dut azken figura zela lurralde gartzailarena. Eta berriki egin dut hitzaldi bat Komertzio Ganbaran Baionan lurralde antolaketari buruz, eta ageritzen pixka bat denek eztabaida ideologikoak gainditzen zituztela mintzatzeko bosgarren figura horren inguruan:

lurraldearen garapena. Baina beharbada hor bada azke-
nean elkarrekin mintzatzeko adostasun minimo bat
bezala. Eztabaidak zer dira? Kostaldea eta barnekaldea-
ren arteko oreka, lurraren prezioa, euskara, lana... Lana
ere badira ikuspegi ezberdinak baina tira...

Beharbada garapenaren figura horrek lot ditzake elkarri,
baina ez ahanzi beste lau puntuak ere. Bada aniztasun
hori, eta politikoeak ere gogoan ukan behar dute hori.

**-Estatuak Ipar Euskal Herrian abertzalea den oro blo-
keatu egiten du, baina horretaz beste zera jakin nahi
nuke: Ba al dago konplizitaterik ezkerreko frantses
mugimenduen aldetik joera sozial abertzaleekiko?**

-Galdera ona da. Azken urteotan iduri zaut zenbait pun-
tutan elkarrengandik hurbil dela, adibidez, ingurume-
naren gaian. Berdeak eta abertzaleak askotan biziki hur-
bil dira. Kostaldean bereziki elkarrengandik hurbil dira.
Izan zen proiektu bat bide bat elkarrekin egiteko, Baxe
Nafarroan, eta hor ere elkarrengandik hurbil ziren.

Beraz, eztabaida puntual batzuetan hurbil dira, bereziki
ekologistekin, edo etxebizitzaren auzian, lurraren pre-
zioan. Gero departamentuaren auzian ere bai. Uste dut
isiltzen dituztela eztabaida batzuk lurraldeari buruz:
autonomiari buruz. Abertzalek badituzte euren iritzak
beste mugimendu batzuk ez dituztenak, posizione
ezberdina dute. Ezkerreko mugimendu sozialak Fran-
tzian, badira tendentzia oso zentralistak, eta badira ten-
dentzia erregionalistak. Eman dezagun altermundialis-
ten mugimendua. Hor badakit eztabaidak badirela
abertzaleen lekuari buruz, ea abertzaleak onartu behar
diren edo ez... Gai sozialetan biziki hurbil dira.
Ekonomiaren ikuspegian, liberalismoaren aurkako posi-
zionetan, baina beti bada haustura edo desadostasun

bat. Confédération Paysanne-n, sindikatu mailan, ELBri buruz izan da barne eztabaida, esanez “horiek sobera euskaldunak dira”. Elkarri hurbil ziren laborantzaren ikuspegiari dagokionez, baina beti bada muga bat. ELB adibidez euskal presoez mintzo da. Horrek eztabaida sortzen du.

Bai, elkarrengandik hurbil dira gai sozialetan, baina noizbait gelditzen dira, edo batzuetan ez dituzte aipatzen kexatzen dituzten gaiak.

OHARRAK:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA